

**hh**  
hik hasi

**Paulina Bánfalviri elkarrizketa**  
**'Zirkulu polarraren koadratura' liburuaz**  
**Espazio hezitzaileak DBHn**  
**Pedagogo sortzaileak: John Dewey**  
**Minbizia ikasgelan**  
**Alabazan ipuin kontalariak**  
**Bea Salaberri**

4  
3  
2



# ESPAZIOAK





Zinovita, Teknologi, Injenerian sira malaymalha  
araha paiti buruaha jaiti-masa sarfian alom liburu.

Dasar-tahap inidat paiti itaraha ditatit bera injenier-  
manduak buruak, sira agita, injenier bafian bera kahal  
amaliakan hal agita injenierian ara mampai dia.



# AURKIBIDEA

GAIA / 10

## ESPAZIOAK ETA ERLAZIOAK

Eskola bateko arkitekturak, espazioek, materialek eta bertan sortzen diren erlazioek garrantzi handia dute haurren ikasketa prozesuan. Hala sinetsia daude Italiako Reggio Emilia udal haur eskoletan eta horretaz hitz egitera etorri zen abenduan Daniela Lanzi pedagogo lruñeko udal haur eskoletako hezitzaileengana. Reggio Emiliako esperientziatik abiatuta hainbat gako aipatu zituen.

ELKARRIZKETA / 16

## PAULINA BÁNFALVI

Gaitasun handiko ikasleen arretari buruzko jardunaldietan hitzaldia eman zuen Paulina Bánfalvik, "Pentsamendu sortzailea gelan inklusiorako eta talentuaren garapenerako elementu gisa", izenpean. Irakasleek gaitasun handiko ikasleekin dituzten esperientziak partekatzeko proiektuak koordinatzen ditu eta bere ustez, inguruaren eta bertako harremanen araberakoa da sormen prozesua.

**Argitaratzailea:** XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

**Erredakzioa:** Ane Aranburu, Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostizu, Amaia Mendizabal eta Arantzazu Muñoz.

**Erredakzio batzordea:** Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

**Aholkulariak:** Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Errion-

do, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx, eta Xabier Tapia.  
**Administrazioa:** Uxue Ugartemendia.  
**Diseinua:** Grafik.

**Maketazioa:** Xangorin.  
**Inprimategia:** ANTZA S.A.L. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2018-12-12).  
Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

EAEko Hezkuntza Lege proposamenaz

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA

Espazioak eta erlazioak

16 ELKARRIZKETA

PAULINA BÁNFALVI

"Zerbait sortzailea izango bada, ez du soilik berritzailea izan behar, horretaz gain erabilgarria izan behar du"

24 EKARPENAK

'Zirkulu polarraren koadratura' liburuaz

26 EKARPENAK

Espazio hezitzaileak DBH-n

30 PEDAGOGO SORTZAILEAK

John Dewey

34 GALDEIDAZU

NEKANE LEKUONA

Zer landu dezakegu gelan minbizidun ikasle bat badugu?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

Alabazan ipuin kontalariak

42 ATZEKO ATETIK

Bea Salaberri

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia





# EAEko Hezkuntza Lege proposamenaren gainean

## editoriala

HEZKUNTZAK DUEN GARRANTZI SOZIALA KONTUAN HARTUTA, BESTE ANTOLAKETA MOTA BAT PROPOSATZEN DU HIK HASI-K: DENONTZAT ETA DENONA IZANGO DEN EUSKAL HEZKUNTZA-SISTEMA BERRIA



**A**benduaren 12an, “Euskal hezkuntza legea egiteko prozesu parte-hartzailea eskatu dugu hainbat hezkuntza eragilek” izenburuarekin prentsaurreko bat aurkeztu zuten hezkuntzako hainbat eragilek. Hik Hasi-ri manifestura atxikitzeko eskaera egin zitzaion. Horren aurrean, hauxe da Hik Hasi-k publiko egin duen jarrera:

- **Prozesu parte-hartzailea eskatzearekin bat egiten du Hik Hasik.**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 2013an Heziberri 2020 prozesua abiatu zuenetik, hiru aldiz jaso du deia Hik Hasi-k. Hiruretan, informazioa jasotzera joateko, ez inolako parte-hartzera gonbidatuta.

Hik Hasi-k bere aldetik, urtebeteko eztabaida zabalaren ondoren, eta hezkuntzaren arloko 50 aritu eta aditu ingururekin eztabaidatu eta hausnartu ostean, Hezkuntza Proposamena plazaratu zuen 2017ko urriaren 21ean Donostiako EHU. Proposamena Hezkuntza Sailari helarazi zion eta haren gainean hitz egitera gonbidatu. Hik Hasi-k oraingoz ez du erantzunik jaso. Sei hilabete geroago, 2018ko apirilaren 21ean, Hezkuntza-proposamenaren gaineko eztabaida irekia egin zuen Donostiako EHU. Han ere Hezkuntza Saileko ordezkariarik ez zen izan.

Aipatu berri ditugun arrazoiak tarteko, Hezkuntza Legearen gainean prozesu parte-hartzailea egiteko eskaerarekin bat egiten du Hik Hasi-k.

- **Hezkuntza eragilek proposatutako 9 oinarrien aurrean, dagoeneko gizarte-**

### **ratuta dagoen Hezkuntza-Proposamena jarri nahi du Hik Hasi-k mahai gainean.**

Hik Hasi-ren ustez, jendarteak izan behar du heziketaren protagonista; heztea bere egitekoa dela sentitu behar du, eta arduraz bizi behar du. Asko lagun dezake horretan gertuko kudeaketak. Hori da European indartzen ari den ildo, inbertsioak hobeto kudeatzen lagun dezakeelako, jendeak bereago sentitzen duelako heziketa, eta herritar arduratsukoak sorraraz ditzakeelako.

Hezkuntzak duen garrantzi soziala kontuan hartuta, beste antolaketa mota bat proposatzen du Hik Hasi-k. Denontzat eta denona izango den euskal hezkuntza-sistema berriak –Euskal Hezkuntza Sistema Publiko bateratzaile, sozial edo inklusiboak, esan genezake– hiru oinarri edo ezaugarri izan behar lituzke:

1. Finantzaketari eta hezkuntzako esku-hartzearen jarraipenari dagokionez, PUBLIKOA izan behar du, eta hezkuntza-eskumena duen administrazioa (gero eta gertuagokoa hobe) izango da funtzio horien arduraduna.
2. Eskola bakoitzak AUTONOMOA izan behar du, bere hezkuntza-egitasmoa garatzeko, bai ildo edo estilo pedagogikoari dagokionez, bai ikastetxearen barne-antolaketa dagokionez (jangelaren kudeaketa hezitzailea barne).
3. Edozein udalerritako hezkuntzako esku-hartzean, ezinbestekoak dira HEZKUNTZA-ERAGILEEN arteko lankidetzak, GERTUKO ADMINISTRAZIOAREN inplikazioa eta HERRIKO GAINERAKO ERAGILEEN partaidetza.

\* Oharra: Hezkuntza-Proposamen osoa [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus) webgunean irakur daiteke.

“Bigarren hezkuntzan 50 minutuko saioak? Zergatik? Beti horrela egin delako? Mediku batek eskuekin operatzea bezala da hori.”

Francesc Imbernón





## NAFARROAKO GOBERNUAK HIZKUNTZA PROIEKTUAK EGITEKO BETEKIZUNA EZARRIKO DU IKASTETXE PUBLIKOETAN

Ikastetxeak hizkuntzen topaleku bihurtu; eskola komunitatea osatzen duten mintzairaren arteko loturak estutu; hizkuntza gutxiak sustatu, azalera eta ikasleak horiekin harremanetan jarri. Helburu horiekin guztiekin sare publikoko ikastetxe guztietan hizkuntza proiektuak ezarri nahi ditu Nafarroako Gobernuak 2019tik aurrera. Horretarako lege prozedura abiatu zuen Maria Solana Hezkuntza kontseilariak joan den azaroan eta dena ongi bidean, urtarrilean onartu eta berehala jarriko da indarrean. Egitasmoak hizkuntzen trataera integratua ardatz gisa hartzea du xede, eta egungo ereduari eta eskola guztietan, edozein eredu-takoak izanda ere, eleaniztasuna sustatzea izango da erronka.

Hain zuzen ere, Hezkuntza Departamentuaren asmoa da “bertako bi hizkuntzek presentzia edukitzea, orain arte ez bezala; eta hortik abiatuta, ikasleek beste hizkuntzak ezagutu, jaso eta balioan jartzea”, gaineratu du Hezkuntza Departamentuko Atzerriko Hizkuntza Programen Ataleko buru Uxue Larrazak.

Hainbat ikastetxerekin abiatu du dagoeneko lanketa. Proiektuak lantzeko gida eskaini zaie, eta eredu gisa jarri dituzte, besteak beste, Eusko Jaurlaritzak, Sortzen-ek, Ikastolen Elkarteak eta Mondragon Unibertsitateak aurretik landutako proiektuak.

Bidea, baina, ez dela samurra izango jakitun dira. Eta dagoeneko hainbat zailtasunekin topo egin dute: batetik, ikastetxe bakoitzaren errealitatea; eta bestetik, egungo Euskararen Legeak ezarritako mugak. Hori dela eta, ezinbestekotzat jo dute malgutasuna eta tokian tokiko errotuetara egokitzea.



## PROTESTAK EAE-KO KRISTAU ESKOLAN

Lau eguneko greba egin zuten Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako eskola erlijiosoetan, Kristau Eskola sarekoetan. Protestekin lan hitzarmen berria eskatzen dute, zehazki, soldatak eta lan-baldintzak hobetzea. Sindikatuetatik batuta daude, eta iragarri dute protestan segiko dutela akordiorik ezean. Hirugarren greba egunean, elkarretaratzeko egin zituzten EAEko hiriburuetan. Patronalak sindikatuen jarrera salatu du.

## FRANTZIAKO GOBERNUAK HEZKUNTZAN EGINDAKO ERREFORMAK SALATZEKO MOBILIZAZIOAK EGIN DITUZTE LIZEOETAN

Abenduan zehar ikasle mobilizazio handiak izan dira Ipar Euskal Herrian Jaka Horien mugimendua babesteko. Besteak beste, ikasleek prekaritatea, Parcoursup hezkuntza erreforma eta irakasle posturik ezagatik egin dituzte protestak. Mobilizazioetan ikastetxe batzuk blokeatuak izan dira, horien artean Baionako Rene Cassin lizeoa. Zuzendariak ikasleekin negoziatu ondoren, sarrera bat libre uztea adostu zuten.



# HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

## HEZKUNTZA LEGEA EGITEKO PROZESU BERRI BAT ESKATU DIOTE URIARTERI



Eusko Jaurlaritzak iaz hasitako prozesuaren aurrean kritiko agertu dira hezkuntza arloko 11 eragile. Aipatu dutenez, "legeak adostasun zabalak behar ditu, etorkizuneko hezkuntza-sistema eta ondorioz jendartea bera ere nolakoa izango den baldintzatuko baitu. Horregatik, oinarritzko parte-hartze demokratikoa bermatuko duen prozesu berri bat abiatzea eskatzen dugu guztiok adostutako gaiekin". Orain arte egindakoa albo batera utzi eta berriro hasteko eskatu diote deitzaileek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari.

Joan den urtean abiatu zuen Cristina Uriarteren Sailak hezkuntza lege berri bat sortzeko prozesua. Uste dute Hezkuntza Sailak ez duela zehaztu zein den bere hezkuntza eredua eta zein diren bere asmoak. "Ez du argitu hezkuntza publikoa hezkuntza sistemaren ardatz izateko pausoak emateko prest dagoen, edo egungo sare banaketa kontsolidatu nahi duen", ohartarazi dute. Uste dute hezkuntzaren egungo egoerak gobernuaren "berehalako esku-hartzea" eskatzen duela, "justizia soziala bermatuz eta eskola publikoa indartuz". Era berean, segregazioa eta finantzaketa eredua eztabaidatik kanpo utzi izana gaitzetsi dute.

Hezkuntza arloko honako 11 eragilek babestu dute egitasmoa: EHIGE guraso elkarteak, CC00, ELA, LAB, UGT eta Steilas sindikatuek, Heize irakaskuntza publikoko zuzendarien elkarteak, eskola publikoaren aldeko Gasteizko eta Bilboko plataformek, Zubiak Eraikiz plataformak eta Ikasle Frontea ikasle sindikatuak. Agerraldi bateratua Bilbon egin zuten, orain arte banaka adierazitako iritziak batu eta elkarrekin plazaratzeko.

Hik Hasi egitasmo pedagogikoari ere manifestuarekin atxikitzeko eskaera egin zitzaion eta horren aurrean hartu duen jarrera honako bi ideia nagusi hauetan laburbildu daiteke. Batetik, prozesu parte-hartzailea eskatzearekin bat egiten du Hik Hasik. Eta bestetik, proposatzen diren 9 oinarrien aurrean, Hik Hasik aurretik jendartean aurkeztu duen Hezkuntza-proposamena eskaintzen du. Proposamenaren inguruko informazio gehiago [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus) webgunean aurki daiteke.

## IRAKASLE PREMIA AZTERTZEKO ESKATU DIO SEASKAK PARISI

Datorren ikasturtean Lapurdiko, Zuberoako eta Nafarroa Behereko ikastolek beharko dituzten irakasle postuetarako baliabideak aurreikusutea eta ezartzea eskatu du Seaskak. Aurrez aurre egin zion eskaria Benjamin Griveaux Frantziako Gobernuko bozeramaileari, Donibane Lohitzunen izandako bilera batean. Seaskako zuzendari Hur Gorostiaagak azaldu duenez, ikastoletan irakasle faltan daudela gogorarazi zioten Griveauxi: "Erran diogu Frantziako Gobernu euskararen garapena oztopatzen ari dela bere erabakiekin, eta erantzun digu tokiko hizkuntzen alde dela, ez duela ezer kontra, baina aurrekontu arazoak dituztela".

Ikasturte honetarako, 25 irakasle gehiago eskatu zituen Seaskak, baina Parisek 5,5 baino ez zizkion eman. Halere, beste 14,5 posturekin ari dira ikastoletan: hamar, Seaskak ordainduta, eta 4,5, EEPk finantzatuta.

Argazkian, Seaskako kideek Donibane Lohitzunen egindako elkarretartzea ageri da.





## GIPUZKOAKO KABI ETXEEK ANTOLATUTA, MONTESSORI PEDAGOGIAREN INGURUKO FORMAZIOA EGINGO DA OTSAILEAN, ETA HEZKUNTZA JARDUNALDIA MARTXOAN

Batetik, otsailaren 9an eta 10ean Montessori pedagogiaren gaineko ikastaro trinkoa egingo da, Lehen Hezkuntzara bideratuta, Andoainen. 130 euro balio du ikastaroak eta informazio gehiagorako edota izena emateko [kabietxea@gmail.com](mailto:kabietxea@gmail.com) helbidera idatzi behar da edota 678 52 44 09 telefono zenbakira deitu.



Bestetik, berriz, martxoaren 9an, hezkuntzaren inguruko jardunaldia egingo da, Andoainen haureraren (Bastero Kulturgunean). Besteak beste, ondoko gaiak jorratuko dira: sen onarekin heztea, sarien eta zigorren aurrean alternatibak, haurtzaroko elikadura, etab. Saioa gaztelaniaz izango da eta informazio gehiago nahi izanez gero, [www.kabietxeak.eus](http://www.kabietxeak.eus) webgunera jo behar da.

## PEDAGOGIA SISTEMIKOAREN GAINEKO FORMAZIOA HASIKO DU URTARRILEAN IÑAKI ARANA SISTEMAK

Urtarrilean hasita Pedagogia Sistemikoaren inguruko formazioa egingo du Iñaki Arana Sistemak. Ikuspegi sistemikoak hezkuntza errealitatea begirada zabalago batez ikustea ahalbidetzen du. Begirada zabalagoa izateak, familia-sistema, eskola-sistema, jendarte-sistema, kultura-sistema... kontuan hartzea eskatzen du.

Informazio gehiagorako [www.ianasistemak.com](http://www.ianasistemak.com) webgunera jo daiteke, edota [begiradasistemikoa@gmail.com](mailto:begiradasistemikoa@gmail.com) helbidera idatzi, edota 630 97 68 13 telefono zenbakira deitu.



## HAURREN SEXUALITATEAREN GAINEKO TAILERRA EGINGO DUTE UR TANTA ESKOLAN

Urtarrilaren 19an, "Haurren sexualitate laguntzen" izeneko tailerra egingo dute Ur Tanta eskolan (Iltzarbe, Nafarroa), Laztandu Sexologia-k dinamizatuta. 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etatik 19:30era izango da saioa, 60 euroren truke. Tailerraren helburua da haurren sexualitatean ikuspuntu holistiko batetik eragitea. Belaunaldien arteko komunikazioa hobetzen lagunduko duten tresna praktiko eta teorikoak landuko dira horretarako. Informazio gehiago nahiz izanez gero, edo izena emateko [urtantaeskola@hotmail.com](mailto:urtantaeskola@hotmail.com) helbidera idatz daiteke edota 685 79 65 78 telefonora deitu.

## HEZKUNTZA JARDUNALDIA EGINGO DA LEKEITION URTARRILEAN

2019an Lekeition egingo den Ibilaldiaren harira, hezkuntza jardunaldiak egingo dira urtarrilaren 25ean eta 26an Lekeition, Ikastolak antolatuta. Ostiralez, mahai ingurua egingo da hezkuntza politikaren gainean, eta larunbatez, herri hezitzailearen gainean hitz egiteaz aparte, Hik Hasi-ren Hezkuntza Proposamena aurkeztuko du Joxe Mari Auzmendik.



# HIZPIDE IZANGO DA

## 'ANIZTASUN SOZIALA ESKOLAN: KOMUNITATEAREN AHOTSAK' JARDUNALDIA EGINGO DA OTSAILAREN 16AN, DONOSTIAKO IRAKASLE ESKOLAN



Aniztasun sozialari (nagusiki jatorriarekin eta maila sozio-ekonomikoarekin lotuta dagoenari) erantzutea erronka handia da gaur egun gure eskoletan. Egoera honen aurrean esku-hartze eta proiektu integrala behar da, eskola-komunitate osoa kontuan hartuko duena eta lankidetzat sustatuko duena. Ikastetxe batzuek aurrerapausoak egin dituzte unibertsitatearekin elkarlanean (Mondragon Unibertsitatea). Horren berri emateko jardunaldia egingo da otsailaren 16an, larunbat goizez, Donostiako EHUren HEFA fakultatean. Jardunaldian aukera izango da ikastetxe horien ahotsak entzuteko:

- **Nola kudeatzen dute irakasleek aniztasun soziala?**
- **Zer bizipen dute irakasleek?**
- **Zer bizipen dute gurasoek?**
- **Zer rol jokatzeko du unibertsitateak?**

Izena emateko epea irekita dago jada. Informazio gehiagorako edota matrikula egiteko [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus) webgunera jo daiteke. Edozein zalantza izanez gero, berriz, idatzi [hikhasi@hikhasi.eus](mailto:hikhasi@hikhasi.eus) helbidera edota deitu 943 37 14 08 telefono zenbakira.

- **Eguna:** 2019ko otsailaren 16a, larunbata, goizez.
- **Lekua:** EHUko Donostiako HEFA fakultatea (Oñati plaza, 3-Areto Nagusia).
- **Partaideak:** Eskoriatzako Luis Ezeiza Ikastetxea, Eibarko Arrateko Andra Mari Ikastetxea eta Mondragon Unibertsitatea.

## MATERIAL BERRERABILIAK PROBATZEKO PROIEKTU PILOTUA MARTXAN

Hik Hasin aspaldi planteatu zen Reggio Emiliako Remidaren antzeko proiektua martxan jartzeko proposamena. Remida, jasagarritasunean, sormenean eta berrerabilitako objektuen ikerketan zentratutako proiektu kulturala da. Enpresek, arrazoi ezberdinak tarteko, albo batera uzten dituzten material anitzak eskolen eskura jartzen ditu berrerabiltzeko, haurrek esperimendu, manipulatu eta beste erabilpen bat eman diezaieten. Begi onez hartu zen proposamena, baina Hik Hasitik horrelako proiektua martxan jartzea ezinezkoa zela ikusita, proiektua EMAUSi aurkeztu zitzaion eta haren eskuetan dago orain.

Remidaren gisako proiektu bat martxan jartzeak zer-nolako lana eta dimentsioa duen kontziente izanik, erdibideko proposamen bat landu da momentuz: Haur Hezkuntzako geletan, berrerabilpenaren eta jasagarritasunaren txokoa martxan jartzea. Bertan, EMAUSek lortutako material ezberdinak aurkeztuko dira haurrek esperimendu dezaten. Oraingoz, froga pilotua egingo da ikastetxe gutxi batzuekin. Balorazio positiboa izanez gero, helburua da proiektua nahi duten ikastetxe guztietara zabaltzea.





Italiako Reggio Emiliako haur eskolak hizpide dira berriro ere. Hezkuntza-proiektu eredugarri horren zutabeetako bat du aztergai erreportaje honek: harremanak sustatzeko prestatuta dauden espazioak. Arkitektura eta pedagogia; haurrak, espazioak eta erlazioak; materialak, hezitzaileak eta haurren ikasketa prozesua. Gai horien gaineko hausnarketa egiten dute etengabe Reggio Emilian, familiei eta haurrei galdetuz, pedagogoen eta hezitzaileen arteko hausnarketan sakonduz, hezitzaileen eta arkitektoen arteko elkarlana bultzatuz. Bestek beste, horretaz jardun zuen Daniela Lanzi pedagogoak Iruñeko udal haur eskoletako hezitzaileekin abenduan Iruñera egin zuen bisitan.



# GAIA: ESPAZIOAK ETA ERLAZIOAK

## Arkitektura eta pedagogia

**P**arisko Eiffel dorrea, Singapurreko etxe orratzak, Isfahango mezkita eta plaza, Cuencako etxe zintzilikatuak... zerbaitegatik dira deigarriak eraikin horiek eta gehiago ere. Duten formagatik, koloreagatik, erabileragatik, transmititzen dutenagatik... Arkitektura eta artea nahasten dira. Baten batzuek, nahita edo nahigabe, garrantzia eman zioten bi elementu horiek elkartzeari. Antzeko ildo jarraitu izan dute Italiako Reggio Emiliako udal haur eskoletan. Arkitektura eta pedagogia lotu dituzte. Eta horrexegatik dira hain atseginak, erakargarriak, lasaiak eta egokiak haur horiek baliatzen dituzten espazioak eta gelak.

Iruñeko udal haur eskolek ere ildo horri heldu diote (eta baita Euskal Herriko beste hainbatek ere). Horretan sakondu nahi dute, eta horrexegatik gonbidatu zuten abenduan Daniela Lanzi Reggio Emiliako pedagogoak. Espazioaz, arkitekturaz, pedagogiaz, materialez eta abarrez aritu zen hizketan, Iruñeko zenbait haur eskola bisitatzen zituen bitartean.

### Espazioari balioa ematen diote

Betidanik eman diote garrantzia Reggio Emiliako haur eskoletan espazioari. Haurren ikasketa eta garapen prozesuan garrantzi handia duela uste izan dute eta horrek bultzatu ditu espazioaren gainean etengabeko hausnarketa egitera. Beste modu batera esanda, espazioari balioa eman

diote, eta hori hausnarketa kultural baten ondorio izan da. Espazioaren gainean hitz egiten duten pentsalariak bilatu dituzte eta espazioaz esan direnak bildu ere bai. Zientziak espazioaz esan duena irakurri dute, arkitekturak espazioaz esan duena, pedagogiak espazioaz esan duena, eta galdera bat egin diote euren buruari: zer da espazioa giza-



## GAIA:

# ESPAZIOAK ETA ERLAZIOAK

Arkitektura eta pedagogia

dimensio gisa? Vittorio Gallese zientzialari eta medikuak halaxe dio espazioari buruz: “Arkitektura ez da abstrakzio kontzeptual bat, barneratutako praktika bat baizik. Espazio arkitektonikoak funtsean esperientzia emozionalen eta zentzumen anitzen bitartez eraikitzen dira”. Alegia, arkitektura ez da zerbait abstraktua, esperientzia jakin bat baizik, emozionalki mugiarazten gaituen esperientzia da eta zentzumen anitzekoa.

Reggio Emiliako proiektuaren DNAn txertatuta dago espazioa. Proiektuaren alderdi filosofiko bat da eta halaxe azaltzen diete familiei. Reggio Emiliako Hezkuntza Zerbitzuen Gutunean bilduta eta idatzita daukate zer esan nahi duen espazioak eurentzat: “Subjektutzat hartzen den giroa da espazioa, hezkuntza eta formazio harremanean parte hartzen duena. Ez da erlazioetatik at dagoen edozein formatako edukiontzi bat. Izatez, jakinduria ez dago burmuin indibidualean kokatuta, baizik eta pertsonen, giroaren eta materialen artean partekatua eta zabaldua”. Horregatik, familiak haur eskoletara joaten direnean argi eta garbi adierazten diete giroa funtsezko elementua dela harremanetan. Haurrek espazioarekin duten erlazioa, beste umeekin dute harremana, materialekin dutena, helduekin, sukaldearekin... Haur eskoletako giroak harreman horietaz hitz egiten du.

### Pedagogia eta arkitektura eskutik helduta

“Arkitektura da espazioetan nagusiena, *por excelencia* esaten dena”, dio Daniela Lanzi pedagogoa. “Ikusgarria da eraikin baten egitura arkitektonikoaren eta haurren artean sortzen den erlazioa. Arkitektoak haurrengan pentsatuta antolatzen baditu espazioak, haurrek aukera asko edukiko dituzte gauzak egiteko, ikusteko, ukitzeko, esperimintatzeko... Aukerak emango dizkie espazioak berak. Hori da arkitektura modu pedagogikoan pentsatzea”.

Horretarako, proiektu arkitektoniko batek pedagogiaz hitz egiteko, ezinbestekoa da arkitektoak hezitzaileekin, familiekin eta haurrekin hitz egitea. Haurtzaroaren kulturak zer dioen jakitea funtsezkoa da. “Pentsa nolako ahotsa duten horiek denek bai eraikin berriak egiterakoan eta baita zaharrak berrituzerakoan ere”, dio Lanzik. Pedagogoez eta hezitzaileek printzipio batzuen arabera antolatzen dute euren jarduna, eta garrantzitsua da egitura arkitektoniko horiek printzipio horiek ez blokeatzea.

Beste aldetik, eta arkitekturak eskaintzen duen aukera ikusita, hezitzaileek horretaz baliatzen jakin behar dute. Lanzik dio garrantzitsuena ez dela materialak, egiturak, altzariak... aurkitzea, baizik eta eraikineko arkitekturak zer eskaintzen duen ikustea eta hortik abiatzea. “Ezaugarri horiek hezkuntza-proiektu bihurtzen jakin behar dugu. Hori da benetan interesgarriena. Espazioek zein aukera ematen dituzten hausnartu behar dute hezitzaileek eta pedagogoez eta ikusi espazio horien eta haurren arteko erlazio horretan zein proiektu eraman daitezkeen aurrera. Esate baterako, eskailerak baldin badaude, horren inguruan sor daiteke proiektu bat. Azken batean, espazioak proiektu bilakatzea da gakoa”.

### Gelako giroa aldatu egin behar da

Haur eskola bateko espazioaren barruan giroaren gaineko hausnarketa egitea proposatzen du Lanzik: “Pentsa dezagun zein girotan gauden, zein girotan bizi garen, zein girotan egiten dugun lan. Reggio Emilian gelditu eta urtean behin horren gainean hausnartzen dugu: zein giro daukagu? Eta behatu egiten dugu. Eta behaketa horietatik abiatuta, ikusi zer daukan giro horrek, zer falta zaion, zertan hobetu dezakegun...”. Haur eskola batean hori egitea oso garrantzitsua dela dio, eta batez ere kontuan izatea gelako giroak ezin duela urte osoan berdina izan. “Giroa aldatu egin be-





## GAIA: ESPAZIOAK ETA ERLAZIOAK



har da. Esate baterako, zer zentzu dauka alfonbrak edukitzeak haurrak oinez hasten direnean?”, galdetzen du Lanzik. Adibide horrekin batera lurzoruaen gaia aipatzen du. Haurrak etzanda egoten direnean, lurzorua ezagutza prozesu handi baten oinarria da: lurzoru mota ugari daude, bakoitzak sonoritate desberdina du... Lurzoru bakoitzak zer eskain dezakeen pentsatuz gero, haurraren ikaskuntzarako aukera asko zabal daitezke. “Behatuz gero, aukera berriak ikusiko ditugu eta horrek giroa aldatzeko aukera emango digu”.

### Materialak: arriskuak eta mugak ezbaian

“Zein da hurrek gelan dauden materialekin egiten duten ikasketa prozesua? Zer egiten dute espazio horretan eta material horiekin? Zertarako balio dute material horiek? Zer ikertzen dute material horiekin? Hori da hezitzaileok geure buruari galdetu behar dioguna”, dio Lanzi pedagogoa. “Izan ere, haur eskoletan baldin bagaude, espazio horietan material horiekin hurrek zein ikasketa egiten dituzten kontatu behar dugu”. Horrela, helduaren zeregina haurrari bultzatzea litzateke, bere kabuz zerbait lortzen ez duenean. Aurrera jo ahal izateko materialak eskaini behar zaizkio. Zentzu horretan, helduak ez du atzera egin behar, gauzak egiten eta proposatzen ausartu behar du.

Zein material erabili galdetuz gero, erantzuna zabala da Lanziren ahotan. Reggio Emilian ahalik eta plastiko gutxiena erabiltzen dute, eta hortik aurrera edozein material, betiere haurren adinari eta garapenari lotuta. Hori bai, materialen inbentario bat egitea aholkatzen du: “Haurrei eskaintzen diegun materialen zerrenda egingo bagenu, konturatuko ginatke zer faltako litzaigukeen”.

Reggio Emiliako pedagogoa ez du mugarik jartzen. Eta horrek hainbat hezitzaile urduri jartzen ditu. Arriskua. Material arriskutsuak. Kristalezko ontzi bat ez da arriskutsua hiru hurrekin dagoen hezitzailearentzat, baina 15ekin dagoenarentzat arriskutsua izan daiteke. Puntzoi bat 5 hurrekin ez da arriskutsua, beti beraiei begira egon daitekeelako hezitzailea, bizkarrik eman gabe. “Nire ustez, garrantzitsuena aldeztetik edo *a priori* mugarik ez jartzea da. Baizik eta eskolako unean uneko egoera bakoitzaren arabera erabakitzea material bat erabili edo ez. Garrantzitsuena da mugak gauzak egiteko aukerarik ez eragozte. Gure beldurrengatik mugak jartzen hasten bagara, orduan zaila da hurrekin espazioaren eta materialen kultura partekatzea”.

Horrelako egoeretan, Lanzik erabateko konfiantza du hezitzaileengan. Haren esanetan, hezitzaileek inork baino hobeto ezagutzen dituzte haurrak eta teoriarik onenean baino gehiago fio da hezitzaileengan. “Haurrak zehaztasunez ezagutzen dituzue, eta ederki asko dakizue non dauden mugak eta arriskuak”, dio ozen. “Hori bai, hezitzaileei, pedagogoei edota zuzendaritzakoei beldurra eta kezka sortzen zaienean, hausnartu egin behar da. Horrek bai kezkatzen nauela”. Haatik, garbi adierazten du Reggioko Emiliako pentsamendua: ezinezkoa da arriskurik gabe haztea.

Hezitzaileek borrokalaria izan behar dutela dio Lanzik. Haurtzaroaren kulturaren narratzaileak dira. “Hirietan, herrietan eta beste hainbat lekutan haur eskolak aldatu baldin badira, hezitzaileen lanagatik izan da. Haurtzaroaren kultura zer den azaldu duzue. Beti diot eta onartzea gustatzen zait: hezitzaileerik gabe ez dago pedagogiarik”.

# Haur eskola bat eraikitzen

**H**aur eskola berri bat diseinatu eta eraiki beharko balu zer hartuko lukeen aintzat galdetu dio *hik hasik* Daniela Lanzi Reggio Emiliako udal haur eskoletako pedagogoari.

Hasteko, proiektu arkitektonikoa eta hausnarketa pedagogikoa ez banatzea oso garrantzitsua dela azpimarratu du. Reggio Emilian beti saiatu dira arkitektoen, hezitzaileen, pedagogoen eta gurasoen artean elkarrizketa mantentzen, eta gaur ere hala jarraitzen dute. Izan ere, eskolan dagoenak eta eskolan bizi denak iradokizunak eta proposamenak egin ditzake eta arkitektoek horiek aintzat har ditzakete. Garrantzitsua da arkitekturaren, proiektu arkitektonikoaren eta hausnarketa pedagogikoaren arteko ituna. Eta noski, horri beste elementu garrantzitsu bat gehitzen dio pedagogoak: haurren iradokizunak aintzat hartzea eskola eraikitzerakoan eta haiek arkitektura nola interpretatzen duten ikustea.

Reggio Emiliako esperientzia ikusita, beste elementu bat aipatzen du Lanzik: espazio guztiak zeharkatzeko, betetzeko, bizitzeko aukera izatea. Ez dadila espazioen arteko hierarkiarik egon. Horregatik da garrantzitsua zer ezaugarri dituzten sukaldeak, gelek, espazio komunek, helduentzako espazioek, bilera gelek... Denek dute balio garrantzitsua haur eskola bat eraikitzerakoan, ez batzuk besteek baino gehiago.

Espazio horien arteko erlazioari ere garrantzia ematen dio Lanzik. Bat egiten du Renzo Piano italiar arkitekto ospetsuak dioenarekin: “Espazio guztiak, espazio arkitektoniko izan aurretik, harremanetarako espazioak dira”. Horregatik, inportantea da espazioen arteko koherentzia sortzea, espazio desberdinen arteko erlazioa eratzea, batez ere han ibiliko eta biziko direnen aldetik.

## Ezaugarri zehatz batzuk

Reggio Emiliako eraikuntzetan oinarrituta, haur eskola bat eraikitzerakoan badira jada finkoak diren ezaugarri batzuk, eta horiek aipatu ditu Lanzik:

**1. Gardentasuna:** hormen ordezkristala egoteak gardentasuna lortzen laguntzen du. Garrantzitsua da alde batekoak beste aldekoak ikustea, barrukoa eta kanpokoa ikustea eta bien arteko erlazioa sortzea. Leku batean egon eta beste aldekoarekin harremana edukitzea.

Baina ez da hori bakarrik. Gardetasun didaktikoa ere bada, kulturaren gardentasuna. Komunitate osoaren arteko elkarbizitzaren isla da. Balio pedagogiko eta kultural garrantzitsuenetakoa da gardentasuna.

**2. Plaza:** pertsonak biltzen dituen lekua da. Kultura italiarrean, euskaldunean, europarrean, mendebaldekoan...





## GAIA: ESPAZIOAK ETA ERLAZIOAK



oso elementu garrantzitsua da plaza. Malaguzzik aparteko garrantzia ematen zion, esan nahi baitu garrantzia ematen zaiola plazan gertatzen den guztiari, bertan gertatzen diren hartu-eman guztiari, hitzen trukeei, pentsamendu trukeei... Errenazimenduko plaza da, denen lekua. Plazan sartzea komunitatean sartzea bezala da.

Haur eskola guztietan plazak ez du ez forma ez tamaina bera. Bakoitzak bere plaza du, bakoitzak bere plaza diseinatu dezake, baina denek balio dute elkartzeko, trukerako.

**3. Espazio intimoak:** espazio ireki eta zabalez gain, haur eskola batek espazio intimoagoak ere eduki behar ditu, talde txikiagoetan egoteko. Hortaz, oreka bat egon behar du espazio handien, ertainen eta txikien artean.

**4. Soft quality-ren balioa:** Milango Domus Arkitektura Akademiarekin elkarlanean egiten ari diren ikerketa baten ondorioz, gauza txikiek duten balioari garrantzia ematea inportantea dela ikusi dute. Horrek hainbat elementu zain-tzea esan nahi du:

- Kolorea: dena ez izatea zuria, dena ez izatea horia...
- Materiala: dena ez izatea plastikoa, burdina edo egurra.
- Giroa: aldatzea komeni da, beti berdina ez izatea.
- Argia: argi guztiak ez etortzea sabaitik edo goitik, baizik eta behetik edo aldamenetik eta intentsitate desberdinarekin.
- Lurzorua: ez da oinez ibiltzeko lekua soilik, baizik

eta etengabeko ikasketarako lekua ere bai. Horregatik, garrantzitsua da zein materialetakoa den, ze kolore duen, ze testura...

- Usainak: behatu zenbat usain dauden gelan, eraikinean, zenbat lurrin... Ikertzeko, ikasteko eta hainbat gauza lantzeko aukera asko ematen dute.
- Soinuak: materialekin soinu desberdinak sortzen dira, material bakoitzak bere sonoritatea du. Esperimentatzeko aukera zabalak eskaintzen ditu.

**5. Kanpo espazioa:** lorategia, parkea... Oso garrantzitsua da kanpoko espazioarekin sortzen den elkarrizketa. Espazio honi dagokionez, badago kontu garrantzitsu bat eta Reggio Emiliako familiek esan dutena: inportantea da ohiko aparatuak ez jartzea: txirristra, zubitxo... Nahiago dute kanpo espazio horrek eskaintzen duenetik abiatu eta horren arabera proiektu bat egin. Esate baterako, landarezko hesi bat baldin badago, beste hesi batzuk lotu eta labirinto bat egin daiteke.

Orain arte aipatutako ezaugarriak dituen haur eskola bat eraikiko luke Daniela Lanzi pedagogoak. Haatik, arkitektura ederra eta polita edukitzeak ez du bermatzen haur eskola batek hobeto funtzionatzen duenik. Egia da arkitekturaren eta ikaskuntzaren artean erlazioa baldin badago erraztu egiten duela. Baina dagoenetik abiatzea da kontua: eraikin bakoitzak bere testuingurua eta bere aukerak ditu. Hortik abiatu behar da: zer eskaintzen du daukagun eraikinak? Zertarako balio die haurrei? Zer ikas dezaket testuinguru jakin horretan? Hortik abiatu.



“Ideiak ez dira ezerezetik sortzen,  
lan-talde baten testuinguruan  
eta ikasleak garatzen ari diren  
prozesuaren baitan baizik”



# ELKARRIZKETA:

# PAULINA

# BÁNFA LVI

---

## GAITASUN HANDIETAN ADITUA

Gaitasun handiko ikasleen arretari buruzko IX. jardunaldiak egin ziren azaroan Alcagi Gipuzkoako Gaitasun Handiko haurren elkarteak antolatuta. “Pentsamendu sortzailea gelan inklusiorako eta talentuaren garapenerako elementu gisa”, izenburupean hitzaldia eman zuen Paulina Bánfalvik. “Talentuaren iraultza” (“La rebelión del talento” izeneko blogaren sortzailea da), eta irakasleek gaitasun handiko ikasleekin dituzten esperientziak

partekatzeko proiektuak koordinatzen ditu. Adituaren esanetan, ingurunearen eta ingurunean ditugunekiko harremanen araberakoa da sormen prozesua: “Entzun izan dut haurrari esaten bere sormena erabili eta poema bat sortzeko. Horrela, ezerezetik. Edo buztin puska bat eman eta sortzaile izateko eskatzen diegu. Ariketa horietan beste kontu batzuk ari gara sustatzen: bat-batekotasuna, gaitasun artistikoa... baina ez sormen prozesua”.



**Sormena inklusioa eta talentua edo potentziala sustatzeko elementu gisa aurkezten duzu.**

Hezkuntzak duen erronka handienetakoa bat da ikasleen sormenerako gaitasuna garatzea. Denbora luzean zehar pentsatu izan dugu pertsona inteligenteak eta gaituak jakintza asko zutenak zirela. Baina historian gogoratzen ditugun pertsonak ez dira jakintza asko zutenak, baizik eta jakintza hori gizartearentzat baliagarri izan diren produktu sortzaile eta berritzaile bilakatzeko gai izan direnak. Pentsatzen jartzen bagara zein hartzten ditugun gizarteak nabarmendutako pertsona edo genio gisa, burura datorzkigu Steve Jobs, Einstein, Galileo Galilei,... Pertsona horiek disjuntiboak izan dira, ordura arte zegoena aldatu eta berrikuntza ekarri dute.

Joy Paul Guilford psikologoak bere Inteligentziaren Teoria eza-gunean aspaldi aipatu zuen bezala, “gaur egungo munduari aurre egiteko, portaera inteligenteak baino gehiago, jokaera sortzaileak behar ditugu”. Beraz, lehenengo eta behin, ulertu behar dugu bi jokaera desber-

dinez ari garela. Pertsona inteligente bat gai da asko ikasteko eta jakintza asko pilatzeko. Pertsona sortzaile bat, aldiz, jakintza hori transformatzeko gai da. Horrek ez du esan nahi pertsona batek ezin duenik izan aldi beren inteligente eta sortzaile.

**Beraz, agian sormena bera zer den zehaztu beharko da hasteko, ezta?**

Hala da, nahasmen handia dago sormen kontzeptuaren inguruan. Askotan entzuten da ‘sormena landuko dugu plastikako ariketa batean’; edo ‘ez da sortzailea, ez du ondo marrazten’; edo ‘ariketa bat jarriko diegu, eta haurrek, beren sormena erabiliz, poema bat osatu beharko dute’. Halakoak entzuten dira ez dugulako argi zer den sormena, eta zer prozesu diren inplizituak sormen ariketa batean. Zerbait sortzailea izango bada, ez du soilik berritzailea izan behar, horretaz gain erabilgarria izan behar du, eta balio bat izan. Agian gurpil karratuak dituen bizikleta bat oso berritzailea izango da, baina ez da erabilgarria, ez du baliorik eransten. Agian diseinu lehiaketa batean nabarmendu daiteke, baina hortik aurrera... Produktu

sortzaileek arazo berri nahiz zaha-  
rrentzako konponbideak bilatu behar  
dituzte.

Bestalde, sormena ez da ez bat-  
batekoa, ez une batekoa. Etapaz  
osaturiko prozesu bat da, eta  
saiakera-akatsetik elikatzen da.  
Agian irtenbidea bat-batean buru-  
ratuko zaizu, baina horren aurretik  
pentsamendu kritiko eta jakintzazko  
prozesu mental bat egongo da une  
horretara iritsi ahal izateko. Prozesu  
hori bost urratsetan egituratu daite-  
ke. Lehenengo eta behin, konpondu  
beharreko arazo edo egoera bat  
daukagu eskuartean. Bigarrenik,  
arazo hori zerk sortzen duen az-  
tertzen dugu. Hirugarrenik, zeren  
bila ari garela eta zer dakigun gai  
horri buruz analizatzen dugu, hau  
da, egoera aztertzen dugu. Laugar-  
renik, arazo horrentzat konponbi-  
deak bilatzen ditugu; ideiak sortzen  
ditugu. Eta puntu honen inguruan  
ere nahasmena dugu: ideiak sortzea  
eta sortzaile izatea, bi kontzeptu  
horiek nahastu egiten ditugu. Ideiak  
sortzea pentsamendu dibergentearen  
ondorio da; hori da sormen test-etan  
neurtzen duguna: ideien jariora, kon-  
plexutasuna, aldakortasuna... Baina



sormen prozesuaren laugarren urrats honetan oraindik ideiak sortzen besterik ez gara ari, ez gara sortzaileak izaten ari. Sortzaile izateko azken ideia edo produktura iritsi behar dugu. Izan ere, bosgarren urratsean ideia horiek martxan jartzen dira, eta emaitzak eman ditzakete. Edo ez. Emaitza ematen badu, primeran, nahiz eta emaitza hori ebaluatu eta hobekuntzak egin daitezkeen beti. Eta emaitzarik ez badu ematen, hori zergatik gertatu den aztertu behar da, ebaluatu, eta berriz hasi. Berritoki ere konponbiderik ez duen arazo batetik abiatu eta prozesu guztia martxan jarri.

Beraz, kontu handia izan behar dugu ikasleei egiten dizkiegun proposamenekin. Lehen aipaturiko adibidera itzuliz, entzun izan dut ‘haurrak bere sormena erabili eta poema bat sortuko du’. Horrela, ezerezetik. Edo buztin puska bat eman eta sortzaile izateko eskatzen diegu. Ariketa horietan beste kontu batzuk ari gara sustatzen: bat-batekotasuna, gaitasun artistikoa... baina ez sormen prozesua.

**Sormena ikasle bakoitzak bere aldetik landu beharrekoa al da, edo ikasgelan, taldean ere egin dezakete?**

Oro har, taldearen, ingurunearen eta ingurunean ditugunekiko harremanen arabera da sormen prozesua. Pertsona bakarrari bururatu dakioke azken ideia, baina pertsona hori inguru batez eta talde batez elikatu da. Steve Jobs-ek Apple sortu zutenean ez zitzaion bat-batean bururatu ideia hori bere etxean zegoela, ez, talde profesional batekin lanean ari zen, pertsona horiekin harremanetan zegoen. Beraz, oso garrantzitsua da inguruan daukagun taldea eta hor sortzen diren harremanak. Ideia horiek ez dira ezerezetik sortzen, baizik eta lan talde baten testuinguruan, garatzen ari diren prozesu batzuen baitan, hura eta bestea probatzearen ondorioz.

Uste dugu gutxi batzuk dutela sormenerako gaitasuna, edo bereziki adimentsua izan behar dela sortzaile izateko. Baina sorkuntzaren aurretik datorren pentsamendu laterala, adimena erabiltzeko modu bat da.

Ohitura bat da, adimen-jarrera bat. Horrek esan nahi du inguruneak, familiak eta irakasleok, sustatu eta estimulatu egin dezakegula pentsamendu lateral edo dibergente hori haurretan, pentsamendu sortzaile izateko ohitura har dezaten.

Bestalde, sarri oso sortzaileak diren pertsonak emaitza baxuak lortzen dituzte adimen-testetan. Hala ikusi zuen bere ikerketetan Paul Torrance psikologoak, pentsamendu sortzaile ebaluatzeko adimen-test erabilienak sortu zituen pertsonak. Berak erakutsi zuen hurrei egiten zaizkien adimen-testak hezkuntza ingurune tradizional batean errendimendu handia duten haurrak ebaluatzeko pentsatuak daudela. Hau da, entzumen-sekuentzia moduan ikasten den ikasgela magistraletako ikasleentzako. Beraz, korrelazio handia dago adimen-testetako emaitza horien eta hezkuntza ingurune tradizioaletako ikasketa-arrakastaren artean. Pentsamendu sortzaileak duten pertsonak, edo pentsamendu dibergente altua dutenek, oro har, emaitza txarrak ematen dituzte test horietan.

Sormena ikasi eta garatu egiten da, ez dago sormenik gabeko pertsonarik, sormena blokeatua duen pertsonarik. Hori ingurunearen, praktikaren, erronken eta hurrei sortzaile izateko eskaintzen diegun denboraren arabera izango da. Hurrei pentsatzeko denborarik ematen ez diegunean, adimenak emaitzarik berehalakoan bilatzen ditu; pentsatzeko denbora ematen badiegu, adimena alternatibak sortzen hasten da.

**Pentsamendu sortzaileak sustatu egin badaiteke, nola egin hori ikasgelan, aldi berean curriculumak betetz?**

Hori da erronka. Sormena landu behar dugula diegunean, sarri honako arazoa sortzen da ikasgeletan: berehala pasatu nahi dugu eredu batetik bestera, pentsamendu pasibo batetara ohituta dauden haurrak bat-batean ideia aktiboak sortzen hastea nahi dugu. Eta hori ezinezkoa da. Gurasoek egunero prestatzen badite bazkaria haur bati, eta egun batean bat-batean berari eskatu prestatzeko,

“Zerbait sortzaile izango bada, ez du soilik berritzailea izan behar, horretaz gain erabilgarria izan behar du, eta balio bat izan”

“Inguruneak, familiak eta irakasleok, sustatu eta estimulatu egin dezakegu pentsamendu dibergente hori haurretan, pentsamendu sortzaile izateko ohitura har dezaten”

“Hurrei pentsatzeko denborarik ematen ez diegunean, adimenak emaitzarik berehalakoan bilatzen du; pentsatzeko denbora ematen badiegu, adimena alternatibak sortzen hasten da”



ez da gai izango, nondik hasiko da? Beraz, ikasgeletan ere pausoz pauso hasi behar dugu sormena sustatzen, bestela haurrei sormen-ariketa bat proposatzen diegunean, ez dira gai izango egiteko, ideiak sortzeko. Eta irakasleek esango dute ‘honek ez du funtzionatzen!’, eta betiko eredura itzuliko dira. Beraz, urratsez urrats hasi behar dugu ulertzen zein elementu diren garrantzitsuak pentsamendu sortzailea sustatzeko.

#### **Eta zein dira elementu horiek?**

Horietako bat kuriositatea edo jakin-mina da. Guraso batek orain dela gutxi esaten zidan “haurrak oso curiosoak dira, baina gero pasatu egiten zaie”. Ez, ez zaie pasatzen, kontua da ez dugula sustatzen; alderantziz, batzuetan moztu ere egiten dugu. Galdera asko egiten

dizkigutenean, ohikoa da erantzutea ‘orain ez da horretarako garaia’, ‘geroago hitz egingo dugu horretaz, itxaron’... eta antzerakoak. Erantzun horiekin haurren kuriositatea zapuzten ari gara eta haurrek jakin-mina izatea ez dela ona ikasten dute, ez dela horretarako momentua, hori ez dela egin behar. Beraz, oso garrantzitsua da haurren kuriositatea aztertzea eta sustatzea. Izan ere, kuriositateak eraman du gizakia ilargia zapaltzera. Pertsona curioso batek esango zuen ‘zer ote dago han? Eta joango bagina?’. Curiositateak sormena sustatzen du.

#### **Nola sustatu daiteke kuriositatea edo jakin-mina ikasgelan?**

AEBetako irakasle batek honako proposamena egin zien ikasleei: azalpenak ematen ari zen bitartean,

haurrek itsasgarrietan jaso behar zituzten sortzen zitzaizkien galderak; galdera bakoitzeko itsasgarri bat. Modu horretan, haurren arreta mantentzea lortzen zuen, eta, gainera, edukiaren gainean pentsatzera behartzen zituen. Baina, noski, galdera horiekin zerbait egin behar zen! Ikastorduaren amaieran horma-irudi batean jartzen zituzten itsasgarriak, eta haurrek gaien arabera antolatuta behar zituzten galdera horiek. Astearen amaieran proiektuak sortzen zituzten gai horien arabera. Hala, haurrek ikerketa bat egiten zuten euren galderen erantzunak aurkitzeko. Hori adibide bat da.

Bestalde, sormena sustatzeko beste elementu garrantzitsu bat behaketa da. Horri esker jakin genuen, esaterako, lurra borobila dela. Gure ingurunea ez badugu behatzen, ezin dugu ideia sortzailerik izan, ezingo ditugu identifikatu erantzun alternatiboak izan ditzaketen egoera edo arazoak.

Ikasgelan behaketa sustatzeko hainbat ariketa egin daitezke. Adibidez, irudiak, testuak edo bideoak jarri, eta haurrei elementu batzuei adi egoteko eskatu, eta galdetu ‘argazki honetatik zer ondorio atera ditzakegu? Jakin dezakegu zein urtaro den? Jakin dezakegu zein zona geografiko den? Jakin dezakegu gutxi gorabehera zer gertatzen ari den?’. Horrelako ariketak curriculumarekin loturiko gaiekin egin ditzakegu. Adibidez, Geografia ikasgaietan, edo klima aztertzerakoan, edo Historia ikasgaietan... Lagungarria izan daiteke haurrek behaketaren bidez beren ikasketa-prozesuan esanguratsuak izan daitezkeen ideiak edo edukiak ondorioztatzeko; ideia edo eduki horiek irakasleak eman beharrean, beraiek jaso ditzatela behaketaren bidez.

#### **Sormena irudimenarekin ere lotu ohi da...**

Hala da, bai, hori da sormen prozesuan garrantzitsua den beste elementu bat, baina ikasgeletan ez du leku handirik izaten. Zer egin daiteke ikasgelan irudimena lantzeko? Adibidez, Historia lantzen ari bagara, informazioa mastekatuta



eman beharrean, pentsarazi diezaiekegu nolakoa izango zen haur baten egun bat antzinateko Erroman, edo Historiaurrean... Irudimen ariketa bat da, baina era berean ikerketa sustatzen du, eta curriculumeko gai baten inguruan ikastea sustatzen du. Edo Fisikan, honako proposamenak egin daitezke: zer gertatuko litzateke Ilargiak eta Lurrak talka egingo balute? Horrela abiaduraren, orbiten, frikzioaren eta curriculumeko beste hainbat edukiren inguruan ikasiko dute.

### **Pentsamendu kritikoa pentsamendu sortzailearen beste elementu bat izan al daiteke?**

Bai, sormenerako beste elementu garrantzitsu bat pentsamendu kritikoa da. Pentsamendu sortzailea eta pentsamendu kritikoa beti daude lotuta. Pentsamendu kritikoa eraman zituen, adibidez, ikertzaileak DNA deskubritzera, aurrez uste baitzen unitatea molekula zela.

Pentsamendu kritikoa curriculuma lantzeko modu bat da. Esaterako, Historia ikasgaiaren errekonkistaren inguruan hitz egiten ari garenean, pentsatzea kausa-ondorioen inguruan, parte hartzen zutenen izaera aztertzea, ingurunea eta baldintza sozialak bestelakoak izan baziren emaitza zein izango zen aztertzea... Edo espezieen edo mineralen sailkapen ofiziala zein den esan beharrean, ikasleei pentsatzen uztea eta beraien sailkapen propioa egiteko aukera ematea. Izan ere, sailkapena egiteko, lehenengo eta behin elementu bakoitzaren ezaugarriak aztertu behar dituzu, sailkatzeko taldeak zein izango diren pentsatu, taldekatzeak zein funtzio duen hausnartu... Eta gero sailkapen ofizialarekin alderatu daiteke ikasleek egindakoa, eta zein den erabilgarriagoa pentsa daiteke. Pentsamendu kritikorako hainbat trebetasun lantzen dira modu horretan.

Horiekin batera, pentsamendu sortzailerako beste elementu bat izango da ideiak elkarren artean lotzeko gaitasuna, interrelaziorako ahalmena. Horri esker sortu zen mugikorra edo *smart phone* delakoa: telefono baten eta ordenagailu baten arte-

ko nahasketa da, eta horri argazki kamera gehitu zitzaion, eta grabagailua... Nahasten joan dira, baina izatez ez da produktu berri bat, aurrez zeuden produktuen nahasketa bat baizik. Curriculumak aukera asko ematen dizkigu haurrak ideiak erlazionatzera ohitzeko. Adibidez, materialen egoera azaltzen ari garenean, hau da, solido, likido, gaseoso egoerak aztertzerakoan, zergatik erabiltzen da beti ura adibide gisa? Hori esanguratsua al da haurrentzat? Zergatik ez egin txokolatearekin? Disoluzioa azaltzeko aukera bikaina izan daiteke beraiek goizetan egiten duten *Colacao*-a. Horrek behatzailak izaten ere laguntzen die, eta ikasketa beraien inguruan gertatzen denarekin lotzen. Beraien ingurua ikuspegi zientifiko batekin behatzen has daitezke modu horretan. Edo azaldu diezaiekegu disoluzioa nola dagoen kutsadurarekin lotuta, elementu kimikoak airean diluitzen direnean sortzen dela... Horrek esanahi handiagoa du beraiarentzat uraren inguruan emandako azalpenek baino, edukia beraien inguruneke esperientziekin eta errealitatearekin lotzeko aukera baitute.

### **Ohikotik ateratzea, alegia.**

Hori da. Hain zuzen pentsamendu sortzailea sustatzeko garrantzitsua den beste elementu bat horixe da, mugak haustea. Horrek lagunduzion Albet Einstein zientzialariari Erlatibitatearen Teoria osatzen, espazioaren eta denboraren dimentsioak ez zeukatela zertan mugiezinak izan planteatu zuen. Adibidez, ikasgelan munduaren mapa zergatik jarri behar da modu jakin batean? Espaziotik begiratzean lurra esferikoa da eta ez dago iparra eta hegoa kontzepturik. Baina haurrei beti modu berean aurkezten diegu lurra. Irakasleek, ordea, lagundu egin behar diete gauzak beste perspektiba batetik ere begiratzeko ohitura hartzen. Horrelako gauza sinpleek lagundu egiten diete aurrez eraikitako irudiak hausten eta kontzeptu bat beti ideia berarekin ez lotzen. Adibidez, honako galdera egin diezaiekegu: kontinente bat kabitzen al da herrialde batean? Bada, bai,

“Ikasgeletan ere pausoz pauso hasi behar dugu sormena sustatzen, bestela haurrei sormen-ariketa bat proposatzen diegunean, ez dira gai izango egiteko, ideiak sortzeko. Eta irakasleek esango dute ‘honek ez du funtzionatzen!’, eta betiko eredura itzuliko dira”

“Oso garrantzitsua da haurren kuriositatea aztertzea eta sustatzea. Izan ere, kuriositateak eraman du gizakia ilargia zapaltzera. Pertsona kurioso batek esango zuen ‘zer dago han? Eta joango bagina?’. Kuriositateak sormena sustatzen du”



baina ez dugu pentsatzen Errusia bezain herrialde handirik dagoenik, eta ezta Ozeania bezain kontinente txikirik. Gure pentsamendua beti dago mugatua kontzeptuekin lotzen ditugun ideia jakinekin, eta lotura hori haustea oso garrantzitsua da pentsamendu sortzailerako. Hori eskolan landu daiteke, gauzak modu desberdinetan aurkeztuz.

Horrekin lotuta, gutxitan ematen diegu haurrei akatsetatik ikasteko aukera, eta hori ere oso elementu esanguratsua da pentsamendu sortzailea sustatzeko. Gutxitan egiten da, ordea, ez diegulako feedback-ik ematen haurrei, eta ematen diegunean, kalifikazio bat izaten delako, zuzentzeko aukerarik eman gabe. Zerbait oker egin badu, kalifikazioa eman zain egon gabe, zergatik ez diogu galdetzen, 'aizu, zer uste duzu hobetu zenezakeela?'. Eta aukera eman hobetzeko, besterik ez bada beren satisfakziorako; aukera

eman umeei pentsatzeko zer egin zezaketen hobeto. Izan ere, metodo zientifikoan, adibidez, ezinbestekoa da akatsetik ikasi eta berriz saiatzea. Umeei irakatsi behar diegu ekimenez jarduten, zerbaitetan iraunkorrak izaten; ez dezatela soilik esan 'gaizki egin dut, berriro hasiko naiz', baizik eta esan dezatela, 'gaizki egin dut, zergatik izan da? Zer hobetu dezaket? Hortik abiatuko naiz'. Akatsaren inguruko analisi kritiko bat egiten lagundu behar diegu. Beraz, haurrei feedback-a eman, eta helburu curricularretik harago joaten animatu behar ditugu, hobetzera; oso garrantzitsua da beraien potentziala aprobetxatzeko.

Sormenerako garrantzitsuak diren elementu horiek guztiak pixkanaka joan gaitezke modu errazean ikasgelan sartzen, gure ohiko ikasgaietan, haurrak ohitu daitezzen kurioso izaten, irudimena erabiltzen, beraien akatsak aztertzen, mugak hausten,

ideiak erlazionatzen... Eta jada praktika bat daukagunean, orduan has gaitezke sormen proiektu bat garatzen.

### **Eta nola abiatu daiteke sormen proiektu bat ikasgelan?**

Hainbat modutara egin daiteke. Esaterako, ibilaldi batekin abiatu daiteke proiektua, adibidez haurrekin botanika-lorategira egindako bisita batekin. Ibilaldiak ikastetxe guztietan egiten dira, baina gutxitan egiten da ibilaldi hori curriculumeko edukiekin lotzeko ariketa, edo ibilaldi hori ikasgelako proiektu bilakatzekoa.

Botanika-lorategira egindako ibilaldi horretan, irakasleak haurrei konta diezaieke erleak desagertzen ari direla, eta ikasgelara itzulitakoan horren inguruan eztabaida dezakete, proiektu bat hasiz: zein da arazoa, zergatik ari da hori gertatzen? Eta zergatik da arazo erleak desagertzea? Horrela, ikasgelan pentsamendu kritikoa jartzen da martxan. Proiektuaren lehenengo fasean ikerketa egiten da. Behin ikasleek informazioa bildu dutenean eta ikerketa egin dutenean, elkarbanatu egiten dute hori batak bestearekin. Beraz, aldi berean banaka nahiz taldean egiten dute lan. Horren bidez, ideiak sortzen dira. Izan ere, haurrei ideiak eskatzen badizkiegu, besterik gabe, ez dira sortzen: testuinguru bat sortu behar da horretarako, buruan ideiak sortzeko, ideia fluxu bat eragiteko, ideia horiek anitzagoak izateko, ideia horiek gero eta konplexuagoak izateko...

Behin arazo bat dela ondorioztatuta, irtenbide bila has daitezke haurrak. Eta baten ideiak bestearengan beste ideia bat sortuko du, eta bigarren ideia horrek hirugarren ideia bat ekarriko du... Eta ideia konplexuak eraikitzen hasten dira oinarritzko ideietatik abiatuta. Gainera, modu horretan guztien arteko elkarlana ahalbidetzen dugu. Horretarako garrantzitsua da irakasleak bere jarrerarekin, bere keinuekin, bere begiradarekin ez gaitzestea sortzen diren ideiak, modu horretan guztiengan ilusioa sortzen baitu eta haurrak boteretuko baititu. Horrela,

haurrak pentsatzera bultzatzen ditu, eta elkar errespetatzera. Izan ere, edozein ideiak, txorakeria eman arren edo simplea iruditu arren, pentsamendu, irtenbide edo ideia berri bat sor dezakeela ikasten dute. Irakasleak bere jarrerarekin hori sustatu behar du: sormen proposamenak lantzen ari garenean, ez dago proposamen zuzenik, edo besteak baino zuzenagorik, edozein ideia lagungarri izan daiteke beste ideia batzuk sortzeko, hausnartzeko.

Behin gure hasierako arazoarentzat hainbat irtenbide proposatu direnean, taldean eztabaidatu dezakegu zein diren eraginkorrenak.

### **Talde-lana, beraz, elementu garrantzitsua da sormen prozesuetan, ezta?**

Bai, baina horretan badugu arazo bat: nik uste dut ikasgeletan multzoak egiten ditugula, baina ez taldeak. Izan ere, talde batek helburu jakin bat partekatzen du. Horrek esan nahi du ezin zaiela esan haurrei, besterik gabe, ‘poesia bat egiteko elkartu behar zarete’. Izan ere, poesia bat oso kontzeptu zabala da: zer poesia mota? Zein gairekin? Ze luseratakoa? Zer formatutan? Hau da, helburua oso ondo zehaztu behar da, haurrek ondo jakin dezaten zein izango den beraien egitekoa, inplikazioa, parte-hartzea. Modu horretan gatazkak ekiditen dira. Izan ere, talde batean kide guztiek egon behar dute estimulatuak, guztiek elkarreragin behar dute. Horrela, guztiek jasoko dute zerbait talde horretatik, eta taldean eginiko azken emaitza hobea izango da bakoitzak bere aldetik jardun izan balu baino.

### **Taldeak egiteko irizpiderik gomen-datzen al duzu?**

Ikasgeletan, taldeak egitean, guztien parte-hartzea sustatu nahi izaten dugu, baina horrez harago konpromisoa bilatu behar dugu. Eta horretarako, talde heterogeneoak beti ez dira egokiak. Ikasleei aurkezten diegun zeregin motaren arabera izan beharko da taldekatzea. Jarri den helburu hori betetzeko ikasle bakoitzak ekarpena egiteko duen gaitasuna aztertu behar dugu, hori izango da taldeak egiteko irizpidea.

Adibidez, Erdi Aroari buruz ikerketa bat egiten jartzen badituzte eta proiektu horrek alderdi numeriko bat baldin badauka, beste bat komunikaziokoa, beste bat artistikoa... talde horrek anitza izan beharko du, gaitasun desberdinak dituzten pertsonen osatua, guztiek izan dezaten proiektu horretan konprometitzeko aukera bera.

Horrek guztiak irakaslearen aldetik lan handia eskatzen du, bere ikasle bakoitzaren profila ezagutu behar baitu. Sarean badaude eskuragarri hainbat azterketa ikasleen profil kognitiboa eta sortzailea ezagutzen lagundu diezaguketenak, Javier Touronenak, esaterako. Horretaz gain, ikasgelan jaso dezakeen informazio guztiari adi egon beharko du irakasleak: ikaslearen zaletasunak, interesak, norekin dituen harreman hobeak edo txarragoak... Azkenean horrek informazioa ematen dio irakasleari ikasgelan benetako ikasketarako aukerak sortzeko, eta haurrak etengabe beraien potentziala garatzen egon daitezen, beraien artean sinergiak sortu ditzaten.

### **Sormenari leku bat egin behar dio hezkuntza-sistemak, beraz.**

Sormena literatura bezain garrantzitsua da hezkuntzan, eta, beraz, estatus bera eman behar genioke. Gaur egun haurrak edukiak ikasteko prestatzen ditugu, ikasgai baten inguruko jakintza asko izan dezaten, gero enpresa batean lan-eremu jakin horretan jardun daitezen bere bizitza guztian zehar. Baina lan ingurune horiek jada desagertzen ari dira. Orain sortzen ari diren lanpostuak, gaur egungo ikasleek eskuragarri izango dituzten lanpostuak, ez dakigu zein izango diren ere, ezin ditugu zehazki definitu. Hala ere, badakigu jarrera batzuk eskatuko zaizkiela lan munduan: ekintzailatasuna, sortzailatasuna eta elkarlana. Horrenbestez, ikasleak modu pasibo batean informazioa jasotzera ohitzen baditugu, horren inguruan hausnartu gabe, informazio hori transformatu gabe, sinergiarik sortu gabe, edo rol pasiboa izango duten taldeetan sartzen baditugu, horrek kalte egiten die lan mundura sartzeko orduan.

“Gutxitan ematen diegu haurrei akatsetatik ikasteko aukera, eta hori ere oso elementu esanguratsua da pentsamendu sortzailea sustatzeko. Gutxitan egiten da, ordea, ez diegulako feedback-ik ematen haurrei, eta ematen diegunean, kalifikazio bat izaten delako, zuzentzeko aukerarik eman gabe”

“Akatsaren inguruko analisi kritiko bat egiten lagundu behar diegu haurrei”

“Talde heterogeneoak beti ez dira egokiak. Jarri den helburua betetzeko ikasle bakoitzak ekarpena egiteko duen gaitasuna aztertu behar dugu, hori izango da taldeak egiteko irizpidea”



# EKARPENAK

'ZIRKULU POLARRAREN KOADRATURA' LIBURUAZ

## Zirkulua koadratu nahian

2018ko abenduaren 5ean Oodi liburutegi nagusiaren inaugurazioaren karietara ospakizun handiak egiten ari ziren Helsinkiko bihotzean, Kansalaistori plazan, Töölönlahdenkatu eremuan. Egun batzuk lehenago, azaroaren 28an eta 2.700 kilometrotara, *Zirkulu polarraren koadratura* liburuaren aurkezpena egin zuen Aitzol Lasa matematikari eta idazle nafarrak, oraingoan Iruñeko bihotzean, San Francisco liburutegi nagusitik gertu dagoen Katakarak liburudendan.



**Idoia SARA**

Irakaslea

**K**iasma arte garaikidearen museoaren ondoan kokatu duten eraikin modernoa erabilpen anitzetarako pentsatua eta diseinatua dago. Oodi Keskustakirjasto-k kulturaren inguruan bildu nahi ditu herritarrak. Katakarak herri ekimena ere kulturagune bilakatu da azken urteotan, irakurzaletasuna akuilu, kontzientzia kritikoa sustatzeko asmotan.

Finlandiako liburutegi sarea arautzen duen legedia 1928koa da. Errepublikak bilakatu zenetik jakin izan

zuten ikusten liburutegi publikoen garrantzia populazioaren alfabetizazio prozesuan. Legea lau urtez behin errebisatu eta gaurkotu egiten dute baina funtsezkoena mantenduz. Antzerako gertatzen da Hezkuntza legearekin, politikaz haratago, oinarriko adostasuna badago eta teknikariak dira hezkuntza lege orokorra gaurkotzen dutenak, diziplinarteko ikuspegiarekin, munizipalitatea eta bertatik bertako errealitatea aintzat hartuta. 2017ko urtarrilean egindako errebisioaren ondorioak dira Oodi edukiz hornituko dutenak.

Finlandian herri ikuspegi globala dute eta liburutegiak herritarren oinarriko eskubideak bermatzeko baliatzen dituzte. Esaterako, informaziorako eskubidea, demokraziaren garapenean aktiboki parte hartu ahal izateko, pertsona guztien prestakuntza iraunkorraren eskubidea, gizarte-bazterketa eta arrakala digitala ekiditeko, eta irakurmenerako eskubidea, ezagutza eskuragarri izateko. Azken batean, gizarte kohesiorako tresna bilakatzen dituzte gune kulturalak.

Oodi etorkizuneko liburutegi eredutzat hartu dute 2018ko Veneziako arkitektura bienalean. Beira eta altzairuzko egituraren gainean hiru solairuzko eraikinaren fatxada egiteko bertako egurra erabili dute. Egurra eta pertsonak. Errusiarengandik independentzia erdietsi zutenean duela 100 urte eskas, jakin izan zuten euren potentzialitatea behar bezala

garatzen. Pertsonak ziren altxorrik preziatuena.

Liburutegi moderno honek hiru solairu eta hiru giro diferente ditu. Beheko partean, auditorioa, erakustokia, kafetegia, jatetxea eta zinemekin batera, familientzako liburutegia dago. Familiekin ez ezik haurrak bakarrik libreki mugitzeko espazioak eta programa ugari ere diseinatu dituzte. Bigarren solairuan tailerrak eta grabazio aretoak daude, egiten ikasteko helburuarekin. Goiko solairuan, aldiz, isiltasuna izango da nagusi eta leiho handietan zehar hiriaren edertasuna kontenplaztearekin batera irakurtzeko eta pentsamendua libreki aritzeko giro ezin hobea aurki daiteke.

Goizeko hamaikak dira Kale Nagusiko Huarte ikastetxea izandako bigarren solairuan eta Aitzolek hamar minutura hasiko ditu azalpenak. Oodi-ren inaugurazioa ere atzerapenarekin heldu da, hasiera batean, Finlandiako mendeurrenarekin bat egiteko asmoa baitzegoen.

Tentagarria zaigu Finlandia eta Euskal Herria konparatzea. Bi herri txiki beste bi Estatu hegemoniko handiren artean, biak ala biak hizkuntza preindoeuropeoen gordeleku. Baltikoan dagoen Finlandiak lilurartzen gaitu batzuetan eta erreferente bilakatu askotan. Aditu finlandiarrak gurera etortzen dira noizean behin eta Euskal Herritik ere bidaia pedagogikoak antolatzen dira tarteka, euren arrakastaren gakoak ulertzeko nahian edo. Hik Hasiko lagunekin batera egondakoak gara Helsinkin.

Aitzol Lasa bere azkeneko liburuan Finlandia-Euskal Herria hezkuntza-sistemen noosfera eta elkar neurgarritasuna aztertzeko gakoan inguruan mintzatzen da.

*Zirkulu polarraren koadratura* izenburu aski iradokitzailea da. Matematikari baten hitz jokoa dugu. Nonbait, Grezia klasikoan ezinezko problema bilakatu zen zirkunferentzia edo zirkuluaren koadratura, hau da, lehendabiziko aldiz ohartu ziren ezinezkoa zela konpasa eta erreghela soilik erabiliz zirkulu baten azalera bereko karratu bat lortzea. Inposiblea zen. Antzeko zerbait gerta dakiguke gure hezkuntza-sistema eta Finlandiako alderatzen ditugunean. Irudi luke ezinezko konparaketa dela. Ezer gutxi dagoela Europako iparraldean

Baltikotik Zirkulu Polarrera hedatzen den lurraldearen eta Europako hegoaldean Kantauri itsasertzean dagoen Euskal Herria karratuaren artean.

Aldiz, badira zenbait gako zer pentsa eman dezaketenak. Liburuak hausnarketarako gonbitea luzatzen digu. Ikuspegi osatuago baten alde, irakasleen artean ez ezik hezkuntza komunitatearen baitan eztabaidatzeko proposamena dugu, OCDEk bultzatutako PISA eta kanpo frogen emaitzetatik haratago.

Liburuan lau ideia nagusi ondoriozta daitezke. Batetik, ikuspuntu ekonomikoa dugu. Badirudi azken urteotan hezkuntzaren merkantilizazio moduko bat gertatzen ari dela eta frankizien fenomenoaren areagotu egin da. Esaidazu zer behar duzun (edonik neuk sortuko dut beharra) eta horri erantzuteko programa eskainiko dizut. Balizko gaixotasuna zein den garbi jakin gabe sintomak apaltzeko botika ematen da, eta tarteka zenbaitek bere horretan irentsi. Eredu honetan badirudi eskola produktuak ematen ari direla beste ezer baino gehiago.

Aurrekoarekin lotuta, irakasleen trebakuntzaren inguruko hausnarketa egiten da. Aztertu egiten dira, besteak beste, hasierako prestakuntza eta prestakuntza iraunkorra, garapen profesionalaren beharra eta hezkuntzaren gaineko kontsentsua.

Bestetik, ikaslearen ikuspuntutik etortzen zaigu hausnarketa. Aipatzen da nola Finlandiako sistemak haurra eskubidedun pertsona dela aitortzen duen, ikas-irakas prozesuaren eta eskola antolaketaren erdigunean jarritz. Hezkuntza politikak ere haurren eskubideetatik abiatzen dira, ikuspegi global eta integratzailea bultzatuz; ikaslearen ongizatea du helburu nagusi.

Azkeneko ondorioa hizkuntzari lotua dago. Hamaika ebidentzia linguistikoko epigrafepean, murgiltze ereduaren inguruan hausnarketa egiten da. Euskarak gurean frantsesa eta espanyolarekin bat egiten duen bezalaxe, suomierak errusiera eta suedierarekin batera bizi behar du; antzerako parametroetan beraz.

Gauzak horrela, agian elkar ulertzeko horren urrun ez gaude eta zirkulu polarra kuadratzeko saiakera bat egin daiteke.

Tentagarria zaigu Finlandia eta Euskal Herria konparatzea. Bi herri txiki beste bi estatu hegemoniko handiren artean, biak ala biak hizkuntza indoeuropeoen gordeleku.

Liburuak hausnarketarako gonbitea luzatzen digu. Ikuspegi osatuago baten alde, irakasleen artean ez ezik hezkuntza komunitatearen baitan eztabaidatzeko proposamena dugu, OCDEk bultzatutako PISA eta kanpo frogen emaitzetatik haratago.



# EKARPENAK

ESPAZIO HEZITZAILEAK DBH-N

---

## Eskola-espazioak espazio hezitzaile bihurtzen DBHn

Nola egituratu daitezke eskolako espazioak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutuetan, irakatsi eta ikasteko prozesuetan laguntzeko? Zergatik jarraitzen dugu, gehienbat Bigarren Hezkuntzan, XIX. mendeko eskola-egitura berarekin, jakinda gazteen eta gizartearen beharrak aldatzen ari direla?



**Maialen LOPEZ**

Arkitektoa eta Bigarren Hezkuntzako irakaslea

**E**dozeini, munduko edozein tokitan egonda ere, begiak ixteko eta eskola bat edo ikasgela bat imajinatu eta deskribatzeko eskatzen badiogu, deskribapen berdina egingo dute gehienek. Mundu mailan, hezkuntza-erakinak orokorrean irudimen kolektibo finko batetik abiatuta eraiki dira orain arte, erabiltzaileen beharrak kontuan hartu gabe.

Eraikitako espazioak behar jakin

batzuei erantzuna emateko proposatzen dira, eta horietan bizi direnak baldintzatzen dituzte, bai bizitzeko moduari eta bai erlacionatzeko moduari dagokienez. Historikoki eta gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), proiektu pedagogikoen eta espazioen arteko lotura uztartuz aurrera eramaten ari diren proiektu berritzaile gehienak Haur eta Lehen Hezkuntzaren esparruetan landu dira eta ari dira lantzen. Baina

Bigarren Hezkuntzan espazio homogeneo, estandarizatu eta zurrinak dira nagusi, giza harreman mota eta irakatsi eta ikasteko metodologia jakin batzuk betiketozen dituztenak.

**Eskola-espazioak espazio hezitzaileak dira**

Espazioak ez dira edukiontzi huts eta neutroak; igortzen dituzten mezuen eta dituzten edukien bitartez, harreman mota batzuk bultzatzen dituzte. Beraz, espazioa beti hezitzailea dela esan daiteke.

Espazioen hezigarritasunaren inguruko hausnarketak eta ikerketak, paradoxikoa bada ere, ez dira azken urteetako gai berria. Deweyk (1918), duela mende bat jada, arkitekturaren isilpeko hezkuntza aipatzen zuen, eta, ikasleen rol aktiboa bilatuz eta eskolako espazioen diseinuan, eraikuntzan eta mantenuan parte hartuz, irakatsi eta ikasteko prozesua egunerokotasunarekin lotzea proposatzen zuen.

Deweyren ondoren, beste hainbat adituk beren ikerketetan adierazi dute arkitekturak “isilpeko hizkuntza” bat duela. Baina deskribapen indartsu horiek ez dute eragin nabarmenik izan errealitateko eskola-espazioen diseinuan, eta hezkuntzaren fenomenoak banakako esperientziatik sortu eta pertsonen arteko elkarrekin-tza eta harremanetan oinarritzen den fenomeno bezala ikusi eta ulertu da, testuingurutik ateratako ikaskuntza sustatuz.



Azken urteetan, Cleveland-ek egin-dako ikerketetan azpimarratzen du Bigarren Hezkuntzan egin beharko liratekeen proiektu pedagogiko-espazialeterako proposatzen duen hurbilketan hezkuntza-eredu berriek hezkuntza-ingurune berrien diseinuarekin batera joan behar dutela (beheko diagraman ikus daitekeen modura), eta ikasleei kalitatez irakatsi eta ikasteko prozesua dela azken helburua.

**XXI. mendeko hezkuntzarako espazioak**

EAEko errealtatean, eraikinen konfigurazioa aztertuta, nabarmena da metodologia tradizionalak direla nagusi oraindik Bigarren Hezkuntzan (kasu puntual batzuk salbu). Baina, hezkuntzak gaur egungo eta etorkizuneko gizarterako herritarrak garatzen lagundu behar badu, ikasketa-metodologiekin batera, eskola-espazioen egituraketa birplanteatu beharko da. Ondoren, eskola-espazioek irakasteko eta ikasteko prozesuan lagundu dezaten kontuan izan beharko diren elementuak zehazten dira, testuinguru bakoitzera modu malguan egokituko direnak:

**ESPAZIO FISIKOA** (eskola-eraikina eta haren ingurunea): organismo bizi eta aldakor bezala ulertu beharko da eskola, ingurunearekin beharrezko harremana izango duena. Kontuan izan beharko ditugu eskolaren kokapena, eskolaren (eta ikasgelen) tamaina, auzoarekiko edo herriarekiko iragazkortasuna, barneko espazioen osotasuna eta loturak, irekidurak, espazioen malgutasuna, konplexutasuna eta egituraketa, integratzeko gaitasuna, esanguratsutasuna eta kanpoko espazioak.

**ESPAZIO SINBOLIKOA:** tenperaturak, aireztapenak eta airearen kalitateak, argi naturalak eta koloreek ere berebiziko garrantzia izango dute.

**Eskola-espazio homogeenak vs demokratikoak**

EAEko Bigarren Hezkuntzako eskola-espazioen errealtatera itzuliz, indarrean jarraitzen dute Taylor-en (1995) hitzek: *“Eskolek haurrak gizarte demokratiko batean bizitzeko prestatuko dituztela espero dugu, baina horretarako eskaintzen dizkiegun ikaskuntza-inguruneak*


*estatu gogor baten antza du: arkitektura iraunkorregia, polizia, hesi metaliko erraldoiak, ate itxiak (...). Arkitektura horrek ez ditu demokrazia baterako beharrezkoak diren jabetza-sentimendua, parte-hartzea eta ardura sustatzen.”*

Eskola-espazio homogeen horietan, irakasleek ikasleekiko duten botere eta kontrolak espazioekiko jabetza-sentimendua sortzea oztopatzen du. Testuinguru fisiko horiek sortzen dituzten dinamikek metodologia tradizionalak bultzatzen dituzte, eta ikasketa esanguratsua emateko aukerak gutxitzen.

Baina eskolek espazio berritzaileak eskaintzen badituzte, espazioaren jabetza-sentimendua areagotu egiten dela frogatu da, eskolak ikasleak gatibu edukitzeko toki izatean datzan ideia desegiten denean eta, irakaslea bidelagun dutelarik, modu autonomoan lan egiteko aukera dutenean (gizarte- eta botere-dinamika berriak sortuz).

**Demokraziaren hastapenak ikasgelan**

Elkarrekin banatutako jabetza hori lortzeko, Celak eta Palauk, duela hogeita urte jada, demokrazia ikasgela



### Bigarren Hezkuntzako ikastetxe bateko espazio bat parte-hartze prozesu baten bitartez birpentsatu eta birmoldatzeko gida didaktiko bat garatu dut.

barruan hasten dela zioten, espazioa eta denbora ikasleen beharretatik antolatuz, eta ez alderantziz.

Espazioekiko jabetza-sentimendua sortzean, espazio horiek toki bihurtzen ditugu, eta, horrekin batera, gizarte- edo talde-kohesioa errazten da. Eskolako espazioen erabilerarekin lotuta dauden jarrera, denbora, arau eta arduren eztabaida hasieratik irakasleen eta ikasleen artean eginez, talde-kohesioa bultzatzen da, eta elkarrekin banatutako jabetza eraikitzen, harreman horizontalagoen bitartez.

Ikasgelatik adostasunean, aniztasunean eta aurkakotasunean heztean (batzarraren bitartez, adibidez), ikasle bakoitzak bere nortasuna eraikitzen joango da.

#### Ikasleak protagonista eskola-espazioen eraldaketan

Jabetza-sentimendua, parte-hartzea eta ardura sustatzea, eskolaren antolamendutik harago, eskola-espazioak modu aktiboan eraldatuz egin daiteke, ingurune fisikoaren eraldaketa irakatsi eta ikasteko prozesuaren parte eginez.

Egunerokotasunean, ohitura gutxi dago, espazioetan (elementu fisiko, sinboliko eta kulturaletan) esku hartzeko jarduerak egiteko. Ez etxeko espazioetan, ezta eskolakoetan ere, ez dira arkitekturaren sentsibilizazio eta diziplinara hurbiltzeko

jarduerak aurrera eramaten. Horrelako jarduerak garatuz, espazio- eta arkitektura-elementuen ezagutza, zaintza, mantenua eta horiekiko identifikazioa areagotuko litzateke. Horrelako esperientziak Haur eta Lehen Hezkuntzan asko zabaldu badira ere, oso murrizak dira Bigarren Hezkuntzan.

#### Denon eskola gure egiten. Gida didaktikoa. Ikasleak protagonista eskola-espazioen eraldaketan

Bigarren Hezkuntzako ikastetxe bateko espazio bat parte hartzeko prozesu baten bitartez birpentsatu eta birmoldatzeko gida didaktiko bat garatu dut, helburu batekin: ikastetxe-ko espazio bat eskola-komunitateak nola bizi duen aztertzea, birpentsatzea, birdiseinatzea eta eraldatzea, ikasleak protagonista izango diren parte-hartze prozesu hezitzaile baten bitartez.

Proposatzen den gida didaktikoa Bigarren Hezkuntzako edozein institutuk erabili ahal izango duen gida baten oinarria da, eskolako espazio bat birpentsatu eta eraldatu nahi badu eta prozesu hori modu hezitzaile eta parte-hartzaile batean gauzatu nahi badu; dena den, talde edo zentro bakoitzak jarduerak bere modura pertsonalizatzeko aukera izango du.

Gida garatzen hasi baino lehen, galdetegi bat pasatu nuen irakasle gisa praktikak egiten aritu naizen Bigarren Hezkuntzako Institutuan, neuk sortutakoa, irakasleen eta ikasleen artean eraikitako ingurunearen pertzepzioa, eskola-espazioen inguruan zuten iritzia eta eskola-espazioak eraldatzeko gai ikusten ziren ezagutzeko. 20 irakasleren eta ia 90 ikasleren erantzunetatik, hainbat ondorio atera ziren:

- **Hautematea** (eraikitako ingurunea, ikasteko eta ikasteko prozesua, eta harremanen inguruko pertzepzioak): ikasleak eta irakasleak, oro har, ez dira gustura sentitzen eskola-espazioetan, eta espazio horiek ez diete laguntzen ikasleei ikasketa-prozesuan. Gainera, irakasleen iritziz, eskola-komunitateak eskola-espazioak bere sentitzen baditu, eskolako elkarbizitza hobetuko da, baina, horretarako, beharrezkoa da

eskola-komunitatearen parte-hartzea.

- **Hausnartzea** (eskola-espazioak birpentsatzea): irakasleek ikasgeletan eta korridoreetan aldaketak egitea proposatzen dute, eta ikasleek, aldiz, ikasgeletan eta aire libreko espazioetan aldaketak egiteko beharra ikusten dute.

- **Egitea**: eskola-komunitatearen iritziak jasoz eta haiekin batera espazioak eraldatuz, uste dute neurri handi batean ikasleen emaitza akademikoak hobetuko direla; baina ez dira gai ikusten eraldaketa horiek egiteko, eta uste dute diru asko behar dela horretarako.

#### Gidaren garapena

Gida gauzatzeko, IEP “ikerketa, ekintza, parte-hartzea” metodologia hartu da oinarri modura, “parte-hartzea, ekintza, hausnarketa, ekintza” prozesu ziklikoan oinarritzen dena. **IEP metodologia egokitu** hori honako hau da:

- 1. Murgilketa.** Gaian sartzeko, taldekideek elkar ezagutzeko unea da, eta helburu eta igurikimen komunak ezartzeko.
- 2. Diagnostia, detektibe lanetan.** Ikerlan gidatua, hainbat eskalatan arazoak zein diren detektatzeko mementoa.
- 3. Proposamenak eta sorkuntza bateratua.** Eraldatuko den espazioa aukeratu ondoren, taldean proposamenak egiteko eta zer ekintza egingo diren lehenesteko unea da.
- 4. Plangintza.** Hausnarketa bateratua eginez, ekintzak planifikatzeko unea.
- 5. Eraikuntza, ekintzara!**
- 6. Ebaluazioa.** Prozesu guztiari buruz hausnarketa bateratua egiteko eta zikloarekin berriro hasteko erabakiak hartzeko unea.

**Parte-hartzearen esparruan, hiru eskala** proposatzen dira, eta parekidetasuna bilatuz egingo da ordezkarien aukeraketa:

- Talde eragilea: prozesuaren gidariak izango dira, eta jarduera gehien antolamenduaz eta dinamizazioaz arduratuko dira. Ahalik eta modu horizontalenean antolatutako talde egonkorra izango da, eta kide guztiek ardura, betebeharrak eta eskubi-

de berak izango dituzte. Ikastetxeko kolektibo guztietako kideen ordezkariak egongo dira talde horretan.

- Batzar egonkorra: prozesuko jarduera eta erabaki nagusiak talde honetan hartuko dira.

- Ikasgelak: ikasleak prozesuan protagonista izatea nahi bada, ikasle guztien parte-hartzea bermatu behar da.

Parte hartzeko hiru eskalaz gain, jarduera puntual batzuk proposatzen dira, prozesuaren fase edo lorpen jakin batzuk ezagutarazteko. Bestalde, teknologia berriak erabiliz, blog bat sortzea ere eraginkorra izan daiteke, prozesua zabaltzeko.

### Ebaluazioa

Prozesuko une jakin batzuetan, ebaluaziorako askotariko une eta saioak proposatzen dira (parte-hartze eskalaren arabera, galdetegia, hausnarketa motza edo hausnarketa luzea). Ebaluazioa eraikitzailea izan dadin nahi dugu, ikasitakoa aztertze eta zer hobekuntza egin behar diren hausnartu eta proposatzeko. Prozesuan zehar (eta bereziki prozesuaren amaieran, prozesu ziklikoa baita), gaizki egindakoetatik ikasi, eta hobekuntzak edo aldaketak etengabe egitea proposatzen da, ebaluazioa hezitzailea ere izan dadin.

### Ondorioak

Helburua ikasleen ikasketa-prozesuarenez, eskoletan gauzatzen den ikasketa-prozesua hiru eragile nagusirenekin dagoela ondorioztatu dut, lana garatzen joan ahala: ikastetxeko proiektu pedagogikoa, eskolako antolakuntza-egiturak eta eskola-espazioak. Lanaren ardatza eskola-espazioak direnez, ezin uka daitezke antolakuntza-egiturak ikastetxeko proiektu pedagogikoarekin dituen loturak.


Batetik, ikastetxeko proiektu pedagogikoaren bitartez, curriculum eskolan lurreraten da, erabiltzen diren irakaskuntza-metodologiaren bitartez, eta kontuan hartzekoa da lanketa horretan espazioen konfigurazioak duen eragin nabarmena. Gaur egun, nahiz eta Deweyk duela mende bat jada gauza bera aldarrikatu, irakaskuntzan gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira errealtatearekin kontaktua duten irakasteko eta ikasteko metodologiak, eta ikasleen ikaskuntza esanguratsuagoak bilatzen dira; baina espazioek ez badute laguntzen aldaketa horietan, aldaketa horiek hankamotz geldituko dira.

Bestetik, Heziberri dekretuak aipatzen dituen zehar-kompetentzien artean, aipatzekoak dira ekimena, kritikotasuna eta elkarbizitzaren

lanketa, errealtatearekin lotura estua duen ikasketa-prozesu baten ezinbesteko osagaiak baitira. Baina eskolako pertsonen antolakuntza-egitura, eskola-espazioetan islatzen dena, guztiz piramidala da, eta botere-harreman bertikaletan oinarritzen da (curriculumetik hasita). Antolaketa-egitura horien arteko harremanen lanketa, ikastetxe osoko harremanei dagokiena, komunitate osora zabaltzeko behar da, ikasleak onuradun nagusi diren neurrian, haiei ere hitza emanez (Freire, H. 2018).

Azkenik, konpetentzia horien lanketari eta harremanak birplanteatzeari esker, nabarmen handituko da eskola-espazioen aurrean ikasleek eta irakasleek eraikiko duten jabetza sentimendua, Cleverlandek dioten moduan. Espazioak haienak sentituz, gainera, errazago lortuko da ikasleen rol aktibo eta parte-hartzailea.

Baina, eskola-espazioak haienak direla sentitzeko, oinarritzkoa izango da espazioen konfigurazioan eskolako biztanleek parte-hartzea. Ia ezinezkoa da zuk egin edo sortu ez duzun zerbait zeure sentitzea. Beraz, eskola-espazioen lanketa ikasketa-prozesuaren zati izatea oinarritzkoa izango da, ikasleen beharretara egokitzeko eta ikasketa prozesuan laguntzeko (*ikus beheko irudia*).





# PEDAGOGO SORTZAILEAK

## John Dewey

### Esperientzia-eremuen sortzailea

*Pedagogo sortzaileak* izeneko monografikoa eguneratzen dihardu Hik Hasi egitasmo pedagogikoak, eta ikasturte honetan emango du argitara edizio berriua. Hainbat pedagogo liburuxkan txertatu aurretik, ordea, *hik hasi* aldizkarian argitaratuko du haien inguruko informazioa, pedagogiako zein psikologiako adituen eta arituen eskurik. John Deweyren inguruko ekarpen hauxe da zerrenda horretan bederatzigarrena.

**J**ohn Dewey (1859-1952) pedagogo eta filosofoaren ideiek eragin sakona izan zuten joan zen mendearen hasieran eta erdialdean, eta horietako batzuek gaurkotasan handia dute gaur egun. Hainbatek dioenez, aitzindaria izan zen pedagogiaren alorrean. Haren ekarpen nagusia *esperientzia* kontzeptuaren inguruan sortu zuen esparru teoriko zein praktikoa izan zen: eskolak *esperientzia-eremuak* sortu behar zituen uste sendoa zuen, ikaslearen ikaste-prozesuan arrastoa utz zezan.



### Asier HUEGUN

EHUko  
Hezkuntza,  
Filosofia eta  
Antropologia  
Fakultateko  
irakaslea

#### Datu biografikoak

Dewey 1859ko urriaren 20an jaio zen, Burlingtonen (AEB). Proposamen pedagogiko oso bat osatu eta martxan jarri zuen, gerora pedagogiaren historian oihartzun eta eragin handia izan zuena. Hiru zutabetan oinarritzen zuen pedagogia ulertzeko modua: filosofian, politikan eta hezkuntzan. Izan ere, hiru jakintza-eremu horien arteko uztarketa da Deweyren ondarearen ezaugarri nagusia. Haren hitzetan, laborategi demokratikoa izan behar zuen eskolak, eta ikasle guztien beharrak asebate behar zituen. **Esperientziak bizitzeko** eremutat jotzen zuen eskola, eta praktika zen ikasbiderik eraginkorrena. Hortik eratorria da haren esaldirik entzutetsuena: *learning by doing*, eginez ikastea, alegia.

Ingalaterra Berriko unibertsitatean ikasi zuen Filosofia. Handik bi urtera, Lincoln aukeratu zuten presidente, eta Sezesio Gerra hasi zen, 1865. urtera arte luzatu zena. Arrasto sakona utzi zuen gerrak haren bizitza osoan. Izan ere, haren aitak biltegi txiki bat zuen; baina, gerra hasi zenean, bertan behera utzi zuen negozioa, eta boluntario joan zen armadara. Pasarte hori oso garrantzitsua da Deweyren obra ulertzeko: biolentziaren, demokraziaren eta hezkuntzaren inguruan egin zituen gogoetek gerraren bizipenetan dute abiapuntua.

Filosofia gradua lortu ostean, Bigarren Hezkuntzako irakasle moduan

jardun zuen. Haren ondotik, izena eman zuen berriro unibertsitatean, eta doktore-tesia irakurri zuen 1884. urtean. Orduan izan zuen lehen harrereana Hegel filosofoarekin, hango hainbat irakasle Hegelen jarraitzaileak baitziren.

Handik, Midwestera jo zuen, eta irakasle moduan jarraitu zuen lanean. Hantxe bizi izan zen 20 urtez. Baserrigiroko haurtzaroak, Sezeshio Gerrak eta Hegelen obra ezagutzeak arrasto bizia utzi zioten. Gerora, *instrumentalismo* izenez ezagutu ziren haren ideiak antolatzeke orduan, eragin zuzena izan zuen Hegelek. Gainera, beste hainbat lagunen iturritik ere edan zuen Deweyk: Rousseau, Pestalozzi, Herbart, Fröbel, Darwin, Huxley, Comte eta Mead.

### Bizipenak vs edukiak

Filosofia moduan, filosofia praktikoaren onurak azpimarratzen zituen. Filosofia eguneroko bizitza ulertzeko baliagarria zela eta izan behar zuela sinesten zuen, eta ez zuen ulertzen ideia abstraktuen mailan geratu behar zuen diziplina gisa. Deweyren aburuz, bizitza etengabeko mugimenduan dago; zioen aldaketa zela bizitzaren oinarria, eta funtsezkotzat jotzen zuen horietara egokitzeke gaitasuna. Pentsamendu filosofikoaren muina jarduerak planifikatu eta baliako zailtasunak gainditzean datza, Deweyren ustez.

Pedagogia, hortaz, ideia filosofikoak gauzatzeko diziplinatza zuen, eta garbi ikusten zuen bien arteko lotura. Horrenbestez, norbanakoaren gaitasunak garatzeko esperientzia-eremuak sortu behar zirela zioen Deweyk, eta ez horrenbeste eduki akademiko zein zientifiko hutsak. Esperientzia errealez osatutako eremu batean, eskolan, esate baterako, ikasleek aukera zuten euren zailtasunekin eta gaitasunekin topo egiteke eta haiek gainditzeke eta hobetzeko, eremu horretan parte hartuz. Hau da, praktikatik bertatik ikasteko aukera zuten, non ikasle bakoitzak bizitzen zuena eta esperimendatzen zuena izango zen ikaste-prozesuaren gidari. Deweyren ideiak, hortaz, akademizismo hutsean oinarritutako ikasbi-dearen aurkakoak ziren.

1896. urtean, Chicagoko Unibertsitateko Eskola Laborategia ireki zuen, unibertsitatearen laguntzarekin eta hainbat gurasorekin elkarlanean. Ikuspegi berritzailea zuen, eta, izenak zioen legez, laborategi moduan antolatuta zuten: praktikari eta esperimendatzaioari oinarrizko lekua eskaintzen zion eskolak. Laster, Dewey Eskola izenarekin egin zen ezagun.

### Esperientzia-eremuak

Deweyren aburuz, norbanakoaren esperientzia berrantolatzeke eta berreraikitzeke prozesua da heziketa. Horregatik, orduan tradizionalki garatuta zegoen eskolaren ikuspegia aldatzea zen haren sakoneko desira; hau da, gorputzean eta arazoian, sentsazioetan eta ideietan, teoriarik eta praktikan edota ekintzan eta pentsamenduan zetzan ikuspegi diktomiko hori guztia gainditzea. Izan ere, banaketa hori gertatzen zenean, aspergarri bihurtzen zen eskola, eta oso urrun geratzen zen ikasleen beharretatik. Akademikoei bihurtzen zen. Hark argi zuen zer zen eskolaren muina: eskola eraikitzailea, esanahiez betetako esperientziaz osatutakoa, non jarduerak bi norabidetan zabalduko diren: jardueraren beraren ikuspegi sozialetik eta jarduerari hori bera gauzatzeko testuinguruan dauden baliabideak (naturalak, besteak beste) aintzat hartzeke ikuspegitik. Hortaz, alderdi indibiduala eta soziala txanpon beraren bi aurpegi balira bezala ikusten zituen.

*Hezkuntza-esperientzia kontzep-*


tua da haren pentsamendu pedagogikoaren sintesia. Honela zioen Deweyk: “Esperientzia da norbanakoak bere ingurunearekin dituen erlazioen osotasuna”. Hortaz, ez da batez ere gertaera kognitibo bat, arazoia esperientziaren parte den arren.

Dewey, ordea, hori garatzearen alde zegoen, harago joanez: ziurgabetasuna, akatsa eta arriskua. Egonkortasuna eta ziurtasuna lortzeke eskura dugun tresna da arrazionaltasuna, besterik ez; baina mundua ezin da erabat ordenatu nahierara.

Esperientziaren gaineko ikuspegi dinamikoa zuen hark; hau da, esperientzia izaki bizidun baten eta haren ingurune zein alderdi sozialaren arteko trukea da, eta ez ezagueren metatze hutsa. Esperientziak hainbat jarduerak eta ekintzak ditu. Horregatik, Deweyrentzat, hainbat barne-konexio ditu, eta hainbat prozesu biltzen ditu barnean: sentsazioak, sentimenduak, pentsamenduak... Horregatik, esperientzia eta pentsamendua elkarrekin lotuta doazen kontzeptuak direla zioen beti.

Haren ikuspegi epistemologikoaren arabera, norberaren mundu-ikuskeraren behin-behinekoa da, eta gizarte batean gertatzen diren mugimenduak, jarduerak eta ekintzekin dago lotuta. Ideia horretatik abiatuta, ezagutzaren ikuspegi klasiko eta estatikoa kritikatu zuen Deweyk.

Horregatik guztiagatik, hezkuntzan eta, zehazki, eskolan, bizkarra eman zion ikuspegi tradizionalari, eta esperientzian oinarritutako metodoa



John Dewey.

### “Argi zuen zer zen eskolaren muina: eskola eraikitzailea, esanahiez betetako esperientziaz osatutakoa. Hezkuntza-esperientzia kontzeptua da haren pentsamendu pedagogikoaren sintesia”

eta jarduteko modua sortu zituen. Azkeneko helburua justiziarekin lotuta zegoen; hau da, demokrazian gaituzko ziren hiritarrak sortzea.

Deweyren ustez, eskolaren egitekoa zen ikasleei hainbat jarduera erreal proposatzea. Ikasleek benetako jarduerak egin behar zituzten, eta, irizpide batzuen arabera, ikasle horiek gai izango dira jarduera amaitu ostean gogoeten eta behaketaren bitartez emaitzaren eta erabilitako bidearen loturaren gaineko hausnarketa bideratzeko. Hau da, ez dago lehenik fenomeno, jarduera edo egoera baten erabateko ulermena; esperientzia bat biziz, horren gaineko ulermenera iritsi gaitzake, ordea. Horregatik, ikaste-prozesu batean alderdi arrazionala ez zela funtsezko osagaia zioen. Garrantzitsua bai, baina ez funtsezkoa.

*Esperientziaren nolakotasunak* kezkatzen zuen Dewey, eta, seguraski, horixe da gaur egungo hezkuntzari (formalari zein ez-formalari) egin dakiokeen ekarpenik sakonena, autore honen begiradapetik. Hezkuntza-esperientziak eragina izan behar du hurrengo esperientzietan. Hortaz, esperientzia eta jarduera oro ez da hezkuntzazkoa; bi ezaugarri bete behar ditu bere baitan: iraunkortasuna eta interakzioa. Lehenengoarekin, Deweyk esan nahi zuen esperientziak markatua izan behar duela, norbanakoarengan arrastoa uzten duena; mugimendura (egitera, sortzera,

zerbaiti irtenbidea ematera...) bultzatzen duen indarra da. Bigarrenarekin, esperientziak norbanakoarengan zerbitu aldatu behar duela zioen. Esperientziak alderdi aktiboa du, eta, esperientzia garatu den testuingurua elementuetan, aldaketak gertatzen dira. Izan ere, barneko eta kanpoko faktoreen arteko interakzioa da esperientzia.

Irakaslearen funtzioa da esperientziak eta beharrak ezagutzea. Deweyren ustez, oinarritzakoa zen ikasle bakoitzaren beharrak eta indibidualtasuna zaintzea. Hortik abiatuta, kooperaziorako eremua prestatzen zuen, non taldeak berak kudeatzen zuen ibilbidea. Izan ere, ikuspegi akademizistak zalantzan jartzen zuen ikaslearen indibidualtasunaren errespetua. Bazterrean uzten zuen norbanakoaren originaltasuna. Deweyren aburuz, komunitate enbrionarioa zen eskola, eta gizartea demokratikoago eta orekatuago bihurtuko zuen. Aldagai demokratiko behinena eskola zela zioen. Eskolak ez zuen bizitzarako prestatu behar; eskola bera zen bizitza.

#### Printzipio pedagogikoak

Hauek dira Deweyk proposatutako printzipio pedagogikoak:

- Hezkuntza-printzipioak jardueretan oinarritutako ikaskuntzan oinarritzen ziren. Era askotariko jardueren bitartez, hain zuzen ere. Deweyk ez zituen curriculum-edukiak begi onez ikusten; alde batetik, ikuspegi arrazionala gailentzen zelako, eta, bestetik, irakaslearen autoritatearen erakusgarri zirelako. Sentitzen zuen garai hartako eskolak eskaintzen zuena ez zela nahikoa, eta ez zuela bermatzen demokrazian hazitako ikaslerik, demokraziaren gaineko esperientziarik ez zutelako bizitzen eskolan. Horren ondorioz, ezin zen gizarte demokratikorik eratu.
- Are gehiago, argi adierazi zuen eskola ezin zela izan gerorako prestakuntza soila —lan merkaturako edo bizitzarako—, eta erabateko zentzua izan behar zuela ikasleentzat, une horretan

bertan. Hortaz, esperientziak zentzuz beterikoak izan behar zuten, nola garapenean, hala gauzapenean ere.

- Nolanahi ere, ganoragabeko dibertsioa eta xederik gabeko ikasleen entretenimendua zorrotz kritikatzeko zituen, baita eskolaren norabide bakarreko orientazioa ere —ogibide baterako ikuspegia—. Izan ere, Dewey oso kritikoa izan zen gizarte industrialarekin; alegia, bere garaiko olatuaren aurka agertu zen, eta, aldi berean, oso urrun sentitzen zuen bere burua marxismotik. Lehenengo pertsonen pasibotasuna bultzatzen zuelako gaitzesten zuen, eta, hain juxtu, uste zuen kontrakoa bultzatu behar zuela demokraziak: jendartearen parte-hartzea, mugimendua eta aktibotasuna.
- Sutsuki aldarrikatu zuen demokrazia ez dela soilik afera instituzional bat, elkarlanean eta elkarrekintzan osatutako eta eraikitako bizitzeko modu bat baizik, non pertsona oro kooperazioa behar-beharrezkoa den. Horrek sekulako oinarria du, dimentsio demokratikoa eta dimentsio etikoa lotzen baititu, orpoz orpo. Hau da, pertsonak beren helburuak eta nahiak adieraz eta erdiets ditzakete, modu librean eta aukera-berdintasunean parte hartuz. Gaur egun bolo-bolo dabilten kontu horiek orain dela 100 urte baino gehiago aldarrikatu zituen hark.

#### Oinarri hezitzaileak

Horrek guztiak Deweyk heziketaz zuen ikuspegia ulertzera garamatza:

- Amaitu gabeko prozesua da hezkuntza, eta eskolaldiko heziketa-prozesuaren oinarri-oinarritzko elementuak dira jarduera praktikokoak.
- Ikaskuntza-prozesua funtzio soziala da. Hau da, helburu sozialak izan behar ditu. Esan nahi da hezkuntza, berez, politika egitea dela eta lotura duela ordena sozialarekin.
- Deweyk bizitzeko modu gisa



irudikatzen zuen demokrazia, eta ez gobernu modu gisa. Horregatik, demokrazia heziketaren bitartez baino ezin zitekeen lortu. Horren ondorioz, hezkuntza-sistemak demokratikoa izan behar zuen, Deweyren iritziz, eta, nola ez, ikasleek demokrazia-esperientzia errealak bizi behar zituzten eskolan, gizartea demokratikoa izan zedin.

- Ikasle demokratikoak eta jendartearekin kritikoak izango zirenak sortzeko metodo zientifikoa sinesten zuen Deweyk. Praktika pedagogikoa esperientzian, antolaketan eta prozesu zientifikoa oinarritzen zen. Hau da, jendartearen gaiak edota kezak ikuspegi zientifikoz blaitzeko beharra sumatzen zuen.
- Komunitate demokratikoan bizitzeko eskolaren prestakuntza-programak bi zutabe zituen:
  1. Bizitzaren esperientzia sozial errealak eta eredu-garriak sortzeko eremua da eskola.
  2. Prestakuntza demokratikoak, nahitaez, ikasleek hainbat egoerari aurre egin behar izatea eskatzen du; zailtasunak agertuko dira hor, eta soluziobiderako gaitasunak modu kolektiboan zein indibidualen garatu beharko dituzte.

### Proposamen metodologikoa

Proposamen metodologikoa bost urrats ditu, hurrenkera honetan:

1. Ikaslearen esperientzia erreala eta egunerokoa aintzat hartzea, eta handik abiatzea ikaste-prozesua.
2. Esperientzia horretatik sortzen den zailtasuna edo arazoa identifikatzea.
3. Balizko soluziobideen bilaketa. Informazioa eskuratu, datuak bildu eta estrategiak proposatzea.
4. Irtenbiderako hipotesiak formulatzea.
5. Ekintza praktikoaren bitartez hipotesiak egiaztatzea.

Hori guztia gauzatzeko, mugarri izan zen *Eskola Laborategia*. Izen hori jarri zion bere ideia pedagogikoa gauzatzeko esperientziari. Izena ez da hutsala, noski, esperientziak sortzeko eremu gisa egituratu baitzuen eskola. Han, Deweyk bere ekarpen metodologiko, filosofiko eta pedagogikoak batu, eta praktikan jarri zituen. Urteetan landutako eta ondutako uste teorikoak zein bide praktikoak sistematizatu, eta hipotesiak praktikan jarri zituen. Horrekin batera, aukera izan zuen eskolan izan zitezkeen zailtasun didaktikoak, metodoen ahulguneak eta indarguneak etengabe aztertzeko eta ikertzeko. 1896. urtean hasi zen martxan, 16 ikaslerekin eta bi irakaslerekin.

**Eskola Laborategian, okupazioetan oinarritutako curriculum sortzea eta egituratzea posible zela erakutsi zuen. Okupazio horiek jarduera funtzionalak ziren, haren ustez; hots, ikaslearen inguru hurbilarekin lotutakoak, praktikoak, errealak eta ikaslearen alderdi fisikoa, intelektuala, estetikoa eta morala prestatzeko gai zirenak. Okupazio horiek praktika errealak sortzen zituzten, eta ikaste-prozesu oso bat egituratzen zuten.** Egur-lanak, elikadurarekin lotutako jarduerak, arroparekin eta ostatuarekin lotutakoak... eskola antolatzeko gune bilakatu ziren. Gai horiekin lotutako alderdi praktikoak zein teorikoak ziren ikasi beharreko gaiak. Esate baterako, egur-lanetatik abiatuta, Deweyk aritmetika, botanika, historia, kimika, fisika, zoologia, geografia, mineralogia eta geografia lantzea eta ikastea proposatzen zuen. Hau da, jarduera praktikoak zeuden ikaste-prozesuaren erdigunean, eta horiek ematen zioten zentzua eskolari. Horretaz gain, askotariko eskola-ekipamenduetarako materialak sortzen zituzten, eskolako espazioen diseinuan parte hartuz. Dewey oso zorrotza zen lanbide horietan oinarrituta erabat praktikoa izango zen curriculum bat diseinatzeko, planifikatzeko eta garatzeko orduan. Garapenak bi hilabete irauten zuen gutxienez. Haren argitalpenetan, zorrotasun praktiko hori agertzen da.

Ekarpen ugari utzi zizkigun

Deweyk, beraz. Laburbilduz:

- Progresismo pedagogikoa. Aitzindaria izan zen. Komeni da gaur egungo proiektuetan oinarritutako ikaskuntzako metodologia aktiboek aintzat hartzea aztertu dugun pedagogoa sortutako ideiak eta gogoetak. Proiektu bat hezkuntza-esperientzia bat sortzeko egiten bada, besteak beste, horien ezaugarriak fin-fin deskribatu zituen hark.
- Indibidualtasunaren errespetua taldearen barruan.
- Teoriaren eta praktikaren ezinbesteko lotura. Ikerkuntza-ekintza binomioa eta ildo praktikari jarri zituen zorrotz, gerora beste hainbat autorek garatu dutena (Lewin, Elliot) eta hezitzaileen prestakuntza-prozesuetan erabilitakoa.
- Ezagutza praktikoaren eta esperientziaren estatusa goratzea. Gerora gogoeta erreflexiboa deitu zaionak (Schön) hortxe ditu bere kimuak. Hainbat alorretan, ideia hori da abiapuntua: hizkuntzen irakaskuntzaren metodologia komunikatiboa (Krashen), praktiketan oinarritutako ikaskuntza... Ideia horretatik gehiago edan behar du gaur egungo eskolak.
- Demokraziaren eta parte-hartzearen ikuspegi zorrotza. Eskolak demokrazia praktikatzeke gunetzat zituen. Ideia hori zabalduta garatu duena Tonucci izan da.

### Bibliografia

- *My Pedagogic Creed* (1897)
  - *The School and Society* (1899)
  - *Democracy and Education* (1916).
- Filosofia eta pedagogiari buruzko bere obra nagusia.
- *Reconstruction in Philosophy* (1920)
  - *Human Nature and Conduct* (1922)
  - *The Quest for Certainty* (1929)
  - *Art as Experience* (1929)
  - *Logic: The Theory of Inquiry* (1938)
  - *Experience and Education* (1938).
- Pedagogiako haren azken liburua, haren ideien sintesi bikaina.

# GALDEIDAZU

## ZER LANDU DEZAKEGU GELAN MINBIZIDUN IKASLE BAT BALDIN BADUGU?

**G**ure gizartean, errealitate ugari bizi ditugu, eta, horien artean, gaixotasunak. Minbizia ohiko gaixotasun bilakatzen ari da gure artean, baina zer dakigu benetan? Hitz egiten al dugu naturaltasunez? Nire ustez, hitz debekatua izaten jarraitzen du, izendaezina den gaixotasun horrek guregan sorrarazten duen zirraratik. Denok dugu gure inguruan minbizia pairatu duen edo pairatzen ari den norbait (senitarteko, lagun edo bizilagun), heldua seguruenik. Aldiz, entzun dugu edo ezagutzen dugu minbizia haurrengan edo adingabekoengan? Lerro asko beharko lirateke haur-minbiziaz hitz egiteko (nahiz eta askorentzat hitz debekatua den), baina, oraingo honetan, zenbait orriekin konformatu beharko dugu.

Haur-minbizia gaixotasun arraro eta ezezaguna da askorentzat, baina, hasieran adierazi dudan moduan, gure gizartearen errealitatearen barnean dago (Euskal Autonomia Erkidegoan, urtean 140-150 kasu diagnostikatzen dira). Heriotzarekin erlazionatu ohi dugun minbiziak, haurren kasuan, itxaropenezko mezu bat ematen digu, % 75-85eko biziraupen-tasa baitagokio.

Datu zehatz batzuk eman ondoren, Hezkuntzaren arlori bideratuko dut gaia, minbizidun ikasle bat dagoen ikastetxe batek zer edo nola landu dezakeen aztertzeko. **Beti**ere, gaixorik dagoen adingabeari edo fami-



### NEKANE LEKUONA

#### Aspanogiko gizarte-langilea



**liaren onesp**ena izan behar dugu kontuan. Haiengana gerturatu behar dugu, eta haiekin hitz egin: nola bizi duten gaixotasuna, zer tratamendu eta albo-ondorio dituen, ospitaleko egonaldia nolakoa izan den, eta, funtsean, beraien egunerokoa nolakoa den. Horren gertu egon arren, egoera horretatik urruntzen saiatzen baikara.

- **Eragindako familietan minbizi hitza agertzea**

Egun batetik bestera, erabat aldatzen da haurraren eta familiaren bizitza (ez beraiek aukeratuta), eta osaturik zegoen puzzlea mila zatitan egiten da. *Minbizi* hitza agertzen da, hitz krudel eta izendaezina gurasoentzat (denok dugu txertatua *minbizi berdin heriotza* binomioa). Askotan, beste hitz batzuek ordezkatzen da: *tumorea*, *leuzemia*, *karramarroa*... Geure burua babesteko sistema bat da, azken finean. Irenste-prozesu horretan, minbizia duen seme edo alabari eta anai-arrebei gaixotasunaren gakoak ahalik eta hobekien azaltzen saiatzen dira gurasoak, ulermena eta adina kontuan izanik.

- **Zer esan gaixorik dagoen adingabeari eta haren anai-arrebei?**

Gure gomendioa hauxe da beti: “hobe da zuek esatea kanpotik jakitea baino”, “gezurrik ez esan” eta “modu

ulergarri batean eman azalpenak”; betiere, konfiantza lagun izanik. Ikasgelan ezer egin aurretik, jakin behar dugu (horretarako garrantzitsua da komunikazio irekia eta gertukoa izatea) familiak zer azaldu dion bere semeari edo alabari gaixotasunaz; besteak beste, *minbizi* hitza erabili al duten. Gerta liteke haurrak ez jakitea minbizia duenik, eta bere gaixotasunaz hitz egiteko beste hitz bat erabili izana. Kontuz ibili behar dugu, beraz, gaixorik dagoen haurrak duen informazioarekin eta familiak adierazitakoarekin. Isiluneak edota informazioa errespetatuz beti. Izan ditugu edo entzun ditugu kasuak, non gaixorik zegoen adingabeak ez zekien minbizia zuenik eta lagunengandik jaso duen albistea. Halaber, gertatu izan zaigu larritasuneko mezuak jasotzea, eta egoera ez izatea horrelakoa. Gaixorik dagoen haurraren anai-arrebak ere kontuan izan behar ditugu, are gehiago ikastetxe berean badaude.

Guraso askok horrelakoak esan ohi dituzte: “nik baino hobeto hartu du minbizia duela jakitea”, edo “berak kontatu die ingurukoei: lagunei, gelakideei... Horrek lagundu egin digu egoera hobeto bizitzen”.

- **Eragindako gurasoekin komunikabideak adostu beharra**

Gertuko harreman horretan, ados jarraitezke familiarekin, gelan haur-minbiziaren gaia lantzeko, eta hori nola egin azter daiteke. Era berean, adituak diren elkarrekin harremanetan jarraitezke, bai material didaktikoak eskuratzeko (“Minbizia duten haurrak hezte” irakasleentzako gida), bai zalantzak argitzeko; kasu honetan, ASPANOGIrekin. Familia gehienera ondo iruditzen zaie gaia gelan lantzea, eta esker oneko agertzen dira ikastetxeko irakasleen interesaren eta arduraren aurrean. Ezin dugu ahaztu minbizia duen haurrak ikasle izaten jarraitzen duela, nahiz eta fisikoki han ez egon. Mesedegarri izaten da harremanetarako egutegi bat zehaztea, bai eta familiarekin zer komunikabide eta zenbatean behin erabiliko diren erabakitzea ere. Ahal den heinean eta beti ere eragindakoen oniritziarekin, bisitak egin daitezke: etxean, ospitalean...

- **Hizkuntza bera erabiltzea haur-minbiziaren aurrean**

Informazioaz ari garen honetan, funtsezkoa iruditzen zaigu ezaugarri komunak adostea eragindako familiaren, ikastetxearen eta ikasleen gurasoen artean. Haur-minbizia gai serioa da, eta alde batetara utzi behar ditugu pentsaera nahiz jokabide paternalista gupidagarriak. “Ze pena”, “nik ez nuke jakingo zer egin zure egoeran” eta horrelako esapideak ez dira lagungarriak. Aldiz, denok hizkuntza bera erabiltzen saiatzen bagara, enpatiarren betaurreko eta belarriak janzten baditugu, onura handiagoa izango da haurraren eta haren familiaren egunerokoa. Azalpen argiak emango dira, eta tabuak baztertuko, nahiz eta horrek gure barneko emozioak eta sentimenduak agerian jarriko dituen eta halako biluzte emozional bat eragingo duen. Kontraesana adierazten duten mezuak eta azalpenak ekidin behar dira, askotan seme-alabak babesteko erabiltzen diren gezur horiek edo erantzun nahi eza. Gertatu izan da guraso batek bere semeari edo alabari gelakidearen minbiziaren berri ematea; aldiz, beste guraso batek semeari edo alabari ezer ez kontatzea erabakitzea, edo “tripako mina du”, “garrantzirik ez duen zerbait du” edo horrelako adierazpenak egitea. Gelakideek beraien artean partekatzen dituzte etxeko azalpenak, eta gaixorik dagoen lagunaren itxuran zerbait desberdina gertatu dela ikus dezakete kalean (aipagarriena izaten da ilerik ez duela ohartzea). Haurrak diren heinean, helduok askotan ikusten ez ditugun gauzez ohartzen dira, eta, azalpen egokirik jaso ez badute, errealak ez diren hipotesiak bururatzen zaizkie. Adibidez, “tripako minagatik ilea erori zaio; nik tripako mina izaten badut, ilea eroriko zait”.

- **Kontuan izan behar ditugu haurren adin-tarteak:**

Adin-tarte bakoitzaren analisi labur bat egingo dugu ondoren, zer interpretazio egiten dituzten, gaiaren inguruan nola hitz egin dezakegun eta zer euskarri material erabil ditzakegun aztertzeko, esate baterako.

**a) 0-3 adin-tartea:** adin horretan, ezaugarri nagusiek haurren funtsezko beharrek dute zerikusia (elikadura,

Ikasgelan ezer egin aurretik, jakin behar dugu (horretarako garrantzitsua da komunikazio irekia eta gertukoa izatea) familiak zer azaldu dion bere semeari edo alabari gaixotasunaz; besteak beste, *minbizi* hitza erabili al duten. Gerta liteke haurrak ez jakitea minbizia duenik, eta bere gaixotasunaz hitz egiteko beste hitz bat erabili izana. Kontuz ibili behar dugu, beraz, gaixorik dagoen haurrak duen informazioarekin eta familiak adierazitakoarekin.

higienea eta atsedena). Amarenganako menpekotasun osoa izaten da, lehen urtean bereziki. Adin horretan osatzen dira afektibitate-irudiak (ama eta aita, neba-arrebak, aitona-amonak, irakaslea...). Minbizia duen 0-3 urte bitarteko haurrak adierazitako beharrei erantzuna emateari ospitalean egingo dizkioten frogan eta tratamenduen eragina erantsi behar zaio. Osasun pertsonalaren presentziaz jabetuko dira bereziki, eta beraientzat mingarriak edo deserosoak izan daitezkeen esku-hartzeak egingo dizkiote. Hizkuntza garatzen ari diren garai horretan, negarraren eta garrasiaren bidez adieraziko dute beraien egoera. Gelakideei dagokienez, erreferentziazko pertsonak adierazitako informazioarekin geratuko dira adin horretan: “Aitor gaixorik dago”. Aitor beraientzat jolaserako laguna izango da, eta hura ez dagoela han jabetuko dira hasiera batean; baino, gero, ohituko dira. Gaixotasunaren inguruko ipuinak erabiliko dira, sinpleak eta grafikoak direnak. Helduei dagokienez, minbizia duen haurraren familiak asko eskertuko ditu irakaslearen interesa eta jarraipena. Irakasleak entzuteko jarrera aktiborekin erantzungo die familiaren beharrei.

**b) 3-6 adin-tartea:** hizkuntza-



Eragindako gurasoek eskertzen dute gaiari ematen zaion normaltasuna, eta beste gelakideen gurasoak ere ohartarazi behar dira horretaz, etxean prest egon daitezen minbiziaren berri entzuteko. Ikasgelan haur-minbiziak modu naturalean hitz egiteak enpatiaren eta laguntzaren balioak bultzatzen lagunduko du. Ikasleak gaixorik dagoen gelakidearekin harremanetan jarraitzea onuragarria izango da, posible bada, bisitak eginez (aurretik deituta eta adostuta), edo espazio irekietan elkartzuz (infekzio arriskuak ekidin ahal izateko).

trebetasunak barneratzen doaz, eta beren ingurunearekiko jakin-mina dute. Minbizia duten haurrak ez dira jabetzen gaixotasunaren esanahiaz adin-tarte horretan, baina beren inguruneetik edo familiartekoengandik alden du behar izan dutela jabetzen dira (anai-arrebak, aitona-amonak...), eta emozioak adieraziko dituzte (tristura, haserrea...). Ospitalea leku arrotza izango da haientzat, tratamendu mingarriekin eta ezagutzen ez dituen pertsona ugariarekin (medikuak, erizainak...). Helduen munduan murgiltzen dira, eta beraien adineko lagunengandik urruntzen joaten dira. Ikastolara ez joateak beren erreferentzia sozialak murriztuko dizkie; esate baterako, ikasgelako lagunetik harremanak eta irakaslearekikoak eten egingo dira. Gelakideak jabetuko dira gaixorik dagoen lagunaz, eta galderak ere egingo dituzte. “Zergatik ez dator Markel?”, “zer du?”, “noiz etorriko da?”... Honelako galderak egingo dituzte, eta erantzun bat izan behar dute irakasleen eta gurasoen aldetik. Gertuko jarrera

badute, jaso dezakegu eragindako gurasoen oniritzia, minbiziaren gaia gelakideekin eta gurasoekin nola landu nahi den ikusteko. Adin horretan dauden eragindako haurrentzat eta anai-arrebentzat, ASPANOGIk euskarri materialak ematen dizkie gurasoei: ipuinak (*Kaxparin Super Kimio*, *Kolasa Kattagorria bere gauzak zuri kontari*, *Goazen kimioterapiara* eta *Goazen erradioterapiara...*); edota unitate didaktiko bezala erabili ohi dugun hau: “Eskerrik asko” (Mari Motots leuzemia duen neska bat izango da). Beraien gorputza ezagutzeko aukera izango dute, zelula onen eta txarren bizikidetzaz ezagutzeko dute, kimioa zer den eta beraiengan ze eragin duen, zergatik egon behar duten ospitalean, zergatik ezin duten ikastolara joan denbora batean... Egunerokoarekin zerikusia duen informazioa emango zaie, laburbilduta eta modu grafiko batean. Mezuen artean, garbi adierazi behar da inork ez duela errurik, eta minbizia ez dela kutsakorra, eragindako haurren edo gelakideen buruan horrelako pentsamenduak sortu ohi baitira. Adin honetako haurra ikastolara bueltatzen denean ongi senti dadin, elkarlanean arituko dira gurasoak eta erreferentziatzko irakasleak; aurretik martxan jarritako prozesu baten emaitza izango da hori.

**c) 6-12 adin-tartea:** *minbizi* hitzak eragin handiagoa izango du. Tratamenduaren albo-ondorioez kezkatuko dira; esaterako, fisikoez, eta ilea erortzea da horien artean aipagarriena. Heriotza hitza ere agertuko da kezken artean. Lagun eta gelakideengandik urrun sentituko dira, erabat desberdina izango baita haien egunerokoa. Adin-tarte horretan, alde handia dago ulermen mailan, 6 urteko haur baten eta 12 urteko adingabe baten artean. Lagungarri izan daitekeen materiala eskainiko zaie, eta bakoitzari zer datorkion ondo ikusiko da. Aberasgarri eta onuragarri izango zaie gaixotasuna pasatu duten adin berekoekin egotea eta solasean aritzea. Gelakideek ere seguruena izango dute minbizi hitza bere ingurunean. Informazioa zehatzagoa izango da, senitartekoren batek izan badu eta horretaz hitz egin bada etxean. Minbiziak hitz egiterakoan komeni da emozioez eta

sentimenduez hitz egitea. Emozioak lantzen dituzten dinamikak erabil daitezke, eta, minbizia gaitzat duten filmak ikusiz, ondorioak atera daitezke. Irakasleek gidatuko dituzte solasaldi horiek. Eragindako gurasoek eskertzen dute gaiari ematen zaion normaltasuna, eta beste gelakideen gurasoak ere ohartarazi behar dira horretaz, etxean prest egon daitezen minbiziaren berri entzuteko. Ikasgelan haur-minbiziak modu naturalean hitz egiteak enpatiaren eta laguntzaren balioak bultzatzen lagunduko du. Ikasleak gaixorik dagoen gelakidearekin harremanetan jarraitzea onuragarria izango da, posible bada, bisitak eginez (aurretik deituta eta adostuta), edo espazio irekietan elkartzuz (infekzio arriskuak ekidin ahal izateko). Minbizidun ikaslearen egoera eta nortasuna errespetatuko dira, betiere.

**d) Diagnostikoa 12 urtetik aurrera ematen denean:** jabetzen dira minbiziaren esanahiaz (gaixotasun larri batekin eta heriotzarekin identifikatuta, askotan) eta gizartean duen eraginaz. Beraien kezka nagusiak lagunarteko harremanetan oinarrituko dira. Itxura fisikoan pairatuko duten aldaketak eta bai ospitalean eta bai etxean izango duten gurasoenganako dependentziak adin berekoengandik urrun sentitzera eramango ditu. Kirol- eta aisialdi-jardueretan modu aktibo batean parte hartu ezin izateak bakartze soziala sentitzera eraman ditzake. Nerabezaroa garai zaila da izatez, sentimendu eta emozio ugariak, norberaren identitatea garatzen ari den une garrantzitsua. Minbizia agertzen den une horretan, beraien gogo-aldarte erabat hauskorra da, eta kontuan izan behar dugu hori. ASPANOGIk, minbizi lantzeko egokituta dagoen “Zer daukat?” nerabeentzako gida eskaintzen die. Beste hainbat gairen artean, tratamenduaren albo-ondorio fisiko eta emozionalak deskribatzen dira; horrez gain, gomendio batzuk ematen dizkiete minbizia pasatu duten beste gazte batzuek. Elkartean, egoera beretik pasatu diren nerabeekin jartzen dira harremanetan, hizkuntza berean hitz egiteko eta elkar ulertzeko. Konfiantza giroak eta hitz egiteak asko laguntzen dute, kasu guztietan. ASPANOGIko gazte batek bere nerabezaroan eginiko



irudi eta testigantzen bilduma da horren adibide, Donostiako Ospitale Unibertsitarioan minbizia duten nerabe eta familien erabilerarako prestatua. Era berean, adierazitako bilduma hori eta nerabeentzako gida euskarri ezin baliagarriagoak dira, gaia lantzen duten filmekin, telesailekin edo bestelakoekin batera lanean aritzeko. Minbizidun nerabeak eroso sentitzen dira ospitalean ezagutu dituztenekin, eta, aldiz, kostatu egiten zaie gelakideekin hitz egitea. Egoera fisiko nahiz emozionalak egunero desberdin sentiarazten du; une batzuetan, bakarrik egoteko gogoia izango du, bere emozioekin (haserrea, tristura...) egotekoa, eta beste batzuetan, lagunekin egoteko gogoia izango du. Besteen erritmo berari ez jarraitzeak asko arduratuko du. Gelakideei ulermen maila handiagoa eskatuko die horrek.

#### **Haur-minbizian, funtsezkoa da denon laguntza**

Oro har ikasle minbizidunek zeren beharra izaten duten aztertzen badugu, erantzun hauxe jasoko dugu: berdintasunean oinarritutako jarrera jaso nahi dute gelakidegandik eta irakas-

leengandik. Tratu berezirik ez dute nahi; jabetzen dira ez direla lehengo berak, eta ez zegokien heldutasun maila baten jabe egin direla, esaterako. Gaixotasunean, erabat desberdin sentituko dira. Ezin joan daitezke eskolara, eta etxetik irakasleen laguntza pedagogikorako zerbitzuaren erabiltzaileak izango dira, beharrezko den denboran. Hezkuntzaren barnean dagoen zerbitzu bikain horrek beraien ikasketekin jarraitzeko aukera emango die.

Eragindako gurasoei dagokienez, beharrezkoa da gaixotasunaren berri ematen duten unetik beretik beraiekin harremanetan egotea, eta gertuko jarrera erakustea. Minbiziak erabat aldatu ditu familiaren bizitza eta dinamika, eta min handia eragin du egoera emozionalean. Osasunarekin alderatuta bigarren mailako gaia den arren, ikastetxearen sostengua beharrezkoa dute. Komunikazio erregularra izatea gomendatzen da; hala, gurasoek beren seme edo alaba gaixoaren berri emateko aukera izango dute, hezkuntzaren aldetik zer behar dituzten ikusiko dute, eta prestatu egingo dira eskolara itzultzen direnerako.

Lagun on batek gomendatu zidan lelo honekin amaitu nahi nuke: “Azaldu, adierazi eta partekatu. Sentitu, pentsatu eta ekin. Denok elkarrekin, hitz egin dezagun minbiziaz”.

#### **Material didaktikoa:**

- *Gaixotasunaren abordaia* (ASPANO-GI 2016).
- *Zer daukat?* (ASPANO-GI -2012).
- *Minbizia duten haurrak heztea* (Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila eta Umeekin -2005 urtea).
- *Goazen kimioterapiara eta Goazen erradioterapiara* (argitaratzaileak: ASPANO-GI, ASPANAFOA eta ASPANOVAS-Bizkaia).
- *Kaxparin Super Kimio* (Helle Motzfeldt).
- *Kolasa Katagorri bere gauzak zuri kontari* (Marques de Valdecilla Ospitale Unibertsitarioa – argitalpena euskaraz: ASPANOVAS-Bizkaia).
- *Eskerrik asko unitate didaktikoa* (Katxiporreta CDa, DVDa eta ipuina-2008. urtea).
- *Ane Pirata* (Mixel Murua, Julen Tokero, Katxiporreta, Elkarrek argitaratua, 2009 urtea).

CAF  
ELHUYAR  
SARIAK  
2019

ARROKAZTEKO

BARNEAN




# IGO TRENERA!

INDUSTRIALIZAZIOA ETXERAN  
CAF Elhuyar Sariak Elhuyar proiektuak

LANAK ALBUKERTZEKO ATXEN DOLUA  
2017ko irailaren 14a



# ARGITALPENAK



## BIDAIA LUZEA

Daniel H. Chambers-Federico Delicado

### PAMIELA

Aldi berean gertatzen diren bi bidaiaren istorioa da honakoa. Antzar amak eta bere txitek hegoaldeko lur epeletarantz egiten dute hegan. Bitartean, gerran dagoen herrialdetik hanka egin nahian, giza familia batek ihesari ekiten dio iparralderantz. Bakean eta askatasunean bizitzeko eskubidea duten milioika lagun borrokaren isla.




## MUGA DEITZEN DA PAUSOA

Maider Oleaga

### MAIDER OLEAGA

Iragan abenduan estreinatu zuen Maider Oleaga zinemagileak Elbira Zipitriari buruz ekoiztutako filma. Zipitria, edo *Andereño Elbira*, erreferentea izan zen gerraostean ikastolak ontzeko abiatu zen bidean eta pedagogikoki aurreratuak ziren metodoetan oinarrituta irakasten zuela uste da. Filma egiteko proiektua *crowdfunding* bidez abiatu zen.



## OIHAN LILURAGARRIA

Askoren artean

### TTARTTALO

Etxeko txikientzako proposamena da honakoa. Azal gogorraz eta orrialde koloretsuz osatuta, liburuan zehar animalia ezberdinak agertuko dira. Loroa, tximinoa, leopardo, lehoia eta saguzarrak bizirik daudela dirudite. Orrialdeak pasa ahala, animalia horien ezaugarriak ezagutuko ditugu: zer jaten duten, non bizi diren...



## FAMILIA MILA KOLORE

Miren Amuriza

### ELKAR-KATXIPORRETA

Ipuin-bilduma hau lau istorioi osatzen dute. Miren Amurizak idatzi ditu testuak eta izenburu hauek dituzte ipuinek: *Larunbata*, *Hodei*, *Kukuenea*, eta *Mattin eta Kattin*. Familia eredu ugari bizi dugu gure artean, eta ipuin hauen bidez, hainbat familia eredu ezagutzeko aukera izango da. Elkar argitaletxearen eta Katxiporretaren arteko elkarlanaren emaitza da ipuin-bilduma hau.



## EUSKARAREN ERABILERA INKLUSIBOA

Askoren artean

### EHU-PIKARA MAGAZINE

Gurea genero markarik gabeko hizkuntza izanik, zailtasun gutxiago somatzen eta topatzen ditugu egunerokoan (neuroak baitira ikasleak, bazkideak, abokatuak eta abar). Baina horrek benetan esan nahi al du hizkeran ez dagoela sexismorik? *Pikara Magazine* EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren enkarguz egindako materiala da honakoa.



## ARBI

Iker Burguera

### IKER BURGUERA

Iker Burguerak errealitate areagotuan eta errealitate birtualean oinarritutako liburuak garatzen ditu. Errealitate areagotuko teknologiari esker, *Arbi* liburu pertsonaiak mugimenduan ikus daitezke mugikor edo tabletean. [www.arbibook.com](http://www.arbibook.com) web gunean horren inguruko argibideak ematen dira. Lehen liburu honetan talde-lana, sormena eta enpatia lantzen dira pertsonaiekin.

# PROPOSAMENA

## Alabazan ipuin kontalariak

### Ahoz kontatutako ipuinei garrantzia eta balioa ematen

Irudien bonbardaketa etengabea jasaten dugun garai honetan, badirudi ahoz kontatutako ipuinek bere lekua galdu dutela. Hala eta guztiz, gero eta indar gehiagoz zabaltzen ari da hitza eta ahotsa berreskuratzeko beharra eta garrantzia. Lan horretan dihardute Alabazan taldeko Bego Alabazan eta Pedro Ruiz ipuin-kontalariak.

Ipuin-kontalaritzan daramatzaten 22 urteetan ipuinen inguruko hainbat zerbitzu garatu dute: ipuin kontaketa saioak, sormenerako laborategiak, mintzaldiak... Eskaintzen dituzten ipuin-saioak umeentzat, familia osoarentzat eta baita helduentzat ere izan daitezke.

Normalean ordubate ingurukoak izaten dira saioak eta proposamen desberdinak egiten dituzte: tratu onez, elkarrekiko begiruneaz eta zaintzaz hitz egiten duten ipuinak; beldurra lantzekoak; gurasoen eta hiru urte arteko haurtxoen hurbiltasuna areagotzeko olerkia oinarri duen saioa;



Euskal Herriko kondairak ardatz dituztenak; barre egiteko ipuinak; munduan zehar bidaiatzekoak; naturaren magiaz hitz egiten dutenak; itzal txinatarren teknikaz egindako *Itzal itzelak* saio bereziak...“Hitzaren magiari esker, haurren irudimena izaki miragarritz, animalia abenturazalez, itxura txarreko piratez eta bidean aurkitzen ditugun era askotako pertsonaiezt beteko dugu”, diote Alabazan

taldeko kideek.

Baina saioak ez dira haurrentzat soilik izaten, helduentzako saioak ere eskaintzen dituzte, eta baita familia osoarentzat ere. Aipatzen dutenez, “ipuinak gure bizitzaren parte izan dira hasiera-hasieratik. Baten batek esango du umeentzako baino ez direla, baina, gure ustez, ipuinek ez dute adinik. Batzuetan, helduak izanda, zabaldu ezin ditugun atek ireki di-

tzakete”. Modu horretan, helduentzat honako saioak eskaintzen dituzte: beldurrezko *Ipuin ilunak*, *Arrazoien bila* aritzekoak, heriotza hizpide duen *Azken bisitaria* lana, *Ipuin BERO-tikoak*, eta XV. mendeko balada ezagunaren gaineko *Bereterretxen Kanthoria*, besteak beste.


Ipuin kontaketa saioez gain, sormenerako tailerrak ere eskaintzen ditu Alabazan taldeak. Gaztetxoen artean irakurzaletasuna sustatzeko, metodologia eta formatu desberdinak erabiltuta, istorioak sortzeko eta kontatzeko saioak egiten dituzte gaztetxoekin. Ildo beretik, helduei zuzenduta, *Ipuinak denon ahotan* dinamikaren barnean, tailerrak, mintzaldiak eta aho-narrazio saioak zuzentzen dituzte. Alabazanen esanetan, “gure mundua adierazteko bidea ematen digutelako, eta kontatzean gure buruari buruz ere kontatzen dugulako, ipuinak kontatzea serio hartu beharreko kontua da”.

Eskaintza osatzeko, liburu eta ipuinen inguruan hausnarketa egiteko saioak ere antolatzen dituzte gurasoentzat eta hezitzaileentzat. Mintzaldi horietan, dinamika ezberdinen bidez, bertaratu direnen parte-hartzea sustatzea izaten da helburua, eta honako gaiak landu izan dituzte: Zergatik da hain ona

gure seme-alabei ipuinak kontatzea?; Zelan aukeratu adin bakoitzeko ipuin aproposak; Liburuarekin kontatzeko aholkuak; Libururik gabe kontatzeko gomendioak; Beldurrezko ipuinen beldur gara?; Nola asmatu istorioak hitzetik hortzera? “Horiek dira gure proposamenak, baina beste mintzaldi baterako gairen bat luzatu nahiko balu norbaitek, gustura hartuko dugu”, gaineratzen dute.

### ‘Bereterretxen Kanthoria’ baladaren bertsioa

Bego Alabazani zirrara berezia sorrazten dion balada da *Bereterretxeren Kanthoria*-rena. Euskal Herriko Erdi Arora, XV. mendera, eramaten gaitu eta Zuberoa aldeko lurretan kokatzen da. Istorio honen gaineko ahozko saioak egiten urteak daramatzen arren, orain kontakizun horretan oinarrituta, album ilustratua argitaratu nahi du. *Verkami Crowdfunding* dinamikaren bidez dirua biltzeko saiakera egin du baina ez da iritsi esperotako kopuruetara. Hala ere, Alabazanek ez du amore eman, eta argitalpena bere kabuz egiteko asmoa agertu du. Momentuz, liburua euskarri digitalean dago eta “gazte eta helduentzako oso aproposa” izan daitekeela gaineratzen du.



### Alabazan ipuin kontalariak

#### Harremanetarako

- Bego Alabazan eta Pedro Ruiz
- Tel.: 637302007 eta 670336029
- E-posta: [bego@alabazan.net](mailto:bego@alabazan.net) eta [pedro@alabazan.net](mailto:pedro@alabazan.net)
- Webgunea: [www.alabazan.net](http://www.alabazan.net)

#### Hezkuntza arloko eskaintza

- Ipuin kontaketa saioak hurrentzat eta helduentzat
- Istorioak sortzeko eta kontatzeko tailerrak
- Ipuinen inguruan hausnarketa egiteko saioak





# ATZEKO ATETIK



## EUSKAL HERRITAR ESKOLA

BEA SALABERRI IDAZLEA ETA IRAKASLEA

**H**aurrak ikastolan ditut, eskola euskaldun eta euskal herritarrean eta aitortu beharra dut harro naizela horretaz, euskaraz ikasi ahal izateaz gain, ene hurrek Euskal Herriaz ere ikasiko dutelako, geografiaz, historiaz, literaturaz, musikaz, ohi-turez, denaz.

Nihaur eta belaunaldiko gehienak ez ginen euskal eskolan ibili. Ikastolak gutxi ziren eta urrun herri txikietatik. Batzuentzat, bestalde, enbata eskolak ziren ikastolak. Gure etxean, aita-amek kemenik eta segurtasunik aski sentitu zuten haien gain hartzeko euskararen transmisioaren erronka. Gai sentitu ziren horretarako, borondatez eta noizbehinka larderiaz.

Arberoa aldean deseuskalduntze azeleratua gertatu zen 1970-1990eko hamarkadetan, bi belaunaldiren arteko transmisioaren baita erabileraren aldetik. Etxe gehienetan hizkuntza ez zen transmititu.

Harago, euskaldun ginen hauen kasuan barne, gure herriaz ezagutzarik batere ez genuen. Gehienek ez genuen ideiarik ea nor ziren

Etxepare edo Iparragirre, ez eta auzo herriko Borda ere, ez genezakeen erran xuxen non mugatzen zen gure herria, bertsolariez ez ziguten deus erran, euskaraz nola idatzi ez genekien. Gure etxean jakin genuen zerbait, eskasa dudarik gabe, aita-amen solasei esker, *Herria* astekaria heltzen zitzaigulako, batez ere goizetik arrats Irulegiko irratia entzuten genuelako eta hortik gure herriko gora beheren berri heltzen zitzaigun. Aldiz, bagenekien ontsa zer zen Frantzia, nondik nora heltzen zen, Errege izan zirenen izen eta balentriak, Rabelais eta Molières landu genituen, Hugo eta Zolaz entzuna genuen; eskolak frantses hiritar on egin gintuen. Zorionez, etxean jaso genuen euskal kultur transmisio partzial horren ondotik, kolegio eta lizeoko irakasle zenbaitzuk begiak ireki zizkiguten: hegoaldea deskurritu genuen, antzerkian aritu ginen. Geroago, euskal herritar izatea hautua bilakatu zen eta orduan, egin beharreko indarrak handiak izan ziren. Ez ditut sekulan aski eskertuko gurutzatu nituen jendeak, zeinen bidez ikasi dudan euskal kulturaz

dakidan gehiena, zeini esker ene buru mapak osatu eta egokitu ahal izan ditudan.

Ene hurrek ez dute xendra bide ilun eta idor horietan ibili beharrik. Badakit, ikastolara igorritik, transmisio lan hori egiteko ez naizela bakarrik. Argi dago ez duela ikastolak lortuko berak bakarrik euskal herritarrak sortzea. Baina hemen gaindi gaurko egunean frantses kulturak duen lekua eta indarra direla eta, batez ere beste kulturei izateko jartzen dizkien mugak direla eta, segur da nihurrek bakarrik ez nukeela lortuko ene aita-amek egin zutenaren heina ere. Biak gara beharrezkoak.

Hizkuntzarekin batera, euskal kultur edukien transmisioa funtsezkoa da, hizkuntza bera ez baita aski, bata bestea gabe ez baitoaz. Etor-kizunak dakarrena dakarrela, ene hurren buru mapak, munduaren kontzepzioa eta erreferentziak haien adinean nituenak baino osatuagoak dira dagoeneko eta bada poztekoa euskal curriculumak garatu izana, eskertzekoa eguneroko ahaleginak, metodoak eta esperantza.

# KATXIPORRETA MUSUA



liburu liburu



liburu present



ENBILIA HELARROLERE BILDUMA: BAYOZORRA 4 URTE



liburu liburu



liburu liburu



liburu liburu



Familian karta-jokoa



[www.katxiporreta.eus](http://www.katxiporreta.eus)



**Katxiporreta**

liburu liburu 14  
liburu liburu 14  
liburu liburu 14  
liburu liburu 14





**'ANIZTASUN soziala eskolan:  
komunitatearen AHOTSAK' jardunaldia**  
Otsailaren 16an DONOSTIAko EHU*n*, goizez

Aniztasun sozialari erantzuten emanda handia da gaur egun gure eskoletan —maguski jatorriekin eta maila sozio-ekonomikoen bitarteko desberdintasunak—. Hainbat ikastetxetara [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus) nabarmenak utzi dira eraketan. HH-ko eta LH-ko komunitate barietate ahotsak jasoko dituzte

- NOLA ERANTZUTEN DUTE INHIBIDITZEN ANIZTASUN SOZIALA?
  - ZEH ERANTZUTEN DUTE INHIBIDITZEN?
  - ZEH ERANTZUTEN DUTE ERANTZUTEN?
  - ZEH NOLA ERANTZUTEN DUTE ERANTZUTEN?